ASTELEHENEKO
Goienkaria

2009ko uztailaren 27a > Astelehena > VII. urtea > 243. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Ostalarion esku dago aldarrikatzea Gipuzkoa ez dela Donostia bakarrik"

Mikel Ubarrechena Ostalaritza elkartea > 06

G2a Don Serafinen herrigintzaren erretratua > 23

ESKORIATZA
Amuska emakume elkartea, batzorde berriarekin aurrera > 09

ARRASATE
Igogailuak ipintzeko 12.000 euroko udal dirulaguntza dago > 12

OÑATI
San Martingo eta Kasablankako etxeetarako zerrendak ikusgai > 14

MANKOMUNITATEA > IKUSKIZUNAK

Mundumiraren etorkizunaren gaineko eztabaida zabalik dago

KONTAKTUAK Iraila erdialdean Mundumira markaren jabeek eta Mankomunitateak batzarra egingo dute berriro

ERABAKIA 'Euskal Herria' aldizkariaren proposamenaren ordez, eredu berria antolatzea onartu du Mankomunitateak

KRISIA Mankomunitateak egoera ekonomikoari eta herri txikiei ere egokituko den Mundumira gura du > 03

ARRASATE > OSASUNA

Eskualdeko ospitaleko lanak, ondo

Berritzearen lehenengo fasea, aurreikusi moduan, 2010ean bukatuko dute > 04

Bergara, Euskal Herriko herri arteko pilota txapelketako irabazle

Bergarako pilota taldea da Euskal Herriko onena, zapatuan Euskal Herriko herri arteko pilota txapelketako finala irabazi zuen-eta Legutioren aurka. Kadete eta senior mailetan irabazita, menderatu zituzten legutiarrak Zornotzako Amorebieta V.a pilotalekuan jokatutako finalean (2-1).

Hainbat bergararren babesa izan zuten pilotari mahoneroek Zornotzan. Gero, herritarrek harrera egin zieten udaletxean, duela hilabete eskas eman zen argazkia errepikatuz. > 17

TXAPELDUNAK Muguruzatarrak pozarren; ondoan, Agurne Barruso alkatea eta Pilota Federazioko presidente Xabier Errasti pilotalekuan. JOSETXO ARANTZABAL

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05
Elkarrizketa > 06
Iritzia > 08
Herriak > 11-16
Kirola > 17-21
Kultura > 23-26
Sailkatuak > 27
Telebista-Irratia > 29
Berri-zakua > 30-31
Azkena > 32

JUDOA > OMENALDIA

Arrasateko Judo taldeak, 25 urte

Arrasateko Judo elkarteak 25 urte bete ditu. Arrazoi horregatik, ekitaldi berezia egin zuten zapatuan. Oinarrizko defentsa pertsonalaren ikastaroa egin ondoren, aspaldiko ikasleak omendu zituzten. > 20

Duela 20 urte entrenatzen hasi ziren ikasleei, omenaldia. NEREA MENOR



Aquarium-erako sarrerak Nahi?

Zoaz 2. orrialdera

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
Uztaileko sari nagusia

Sariak irabazteko
HARPIDETU!

Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Kuota: 20 euro

BELAONTZI BATEAN IRTEERA HONDARRIBIATIK
Zu izan zara irabazlea, zorionak!

Jose Angel Oianguren Arana
Saria jasotzera bere emaztea eta alaba etorri ziren.

Zuk ere hurrengo sari nagusian parte hartzea nahi baduzu, harpidetu!

Iraileko sariak

ZIRA

Bidali AG ZIRA
Harpidedunaren izen abizenak
5533 zkra.

UMEENTZAKO LIBURUAK

Bidali AG LIBURUAK
Harpidedunaren izen abizenak
5533 zkra.

AQUARIUM-ERAKO BI SARRERA



Bidali AG AQUARIUM
Harpidedunaren izen abizenak
5533 zkra.

PENDRIVE BAT

Bidali AG PENDRIVE
Harpidedunaren izen abizenak
5533 zkra.

SARI NAGUSIA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

ORDENAGAILU ERAMANGARRIA

Laskar Informatikaren eskutik

- Partikular eta enpresei laguntza teknikoa
- Harreman eta ikerketa pertsonalizatua.
- Informatika eta teknologia berrien produktuak.

Amillaga 32 • 943 76 59 60
(auto garbigailu ondoan)

Etorri eta ikusi gure eskaintza eta promozio guztiak!

AHTEC NETBOOK LUG N011
Sistema eragilea: Ubuntu Linux.
Prozesadorea: 1.6Ghz Intel® Atom N270 Diamondville (533Mhz/512Kb).
Memoria: 1024MB DDR2 533Mhz (1x1GB).
Disko gogorra: 120GB 5400RPM SATA.
Pantaila: 10" pantaila TFT WSVGA LED.
Bermea: Hiru hilabeteko Standard3 Netbook bermea.
Backlight, Webcam, Wireless, Bluetooth.

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: *harpidetza@goiena.com*

KULTURA > MUNDUMIRA

Mundumiraren etorkizunaren gaineko eztabaida zabalik dago

KONTAKTUAK Iraila erdialdean Mundumira markaren jabeen eta Mankomunitatearen arteko kontaktuak egongo direla baieztatu digute alde biek

ERABAKIA *Euskal Herria* aldizkaria eta Gin Tonic produkzioaren proposamena atzera bota eta eredu berria antolatzea onartu berri du Mankomunitateak

KRISIA ETA HERRIA Mankomunitateak egungo egoera ekonomikoari eta jaia antolatu behar den herriari egokitutako Mundumira egin behar dela dio

I.BARANDIARAN-M.BITERI> BERGARA

Orain dela egun batzuk iragarri genuenez, munduko kulturen festen jarraipena kolokan dago Debagoienean. Egindako azken batzarrean, Mankomunitateak uko egin zion festa, datorren urteko edizioari begira, Mundumira markaren jabeek (*Euskal Herria* aldizkaria eta Gin Tonic musika eragileak) nahi duten moduan antolatzeari. Horrekin batera, eredu berria aztertzea ere adostu zuten.

Debagoieneko Mankomunitateko presidenteordе Pedro Lasagabasterrek gehiengoz hartutako erabaki horren arrazoiak azaldu dizkigu. Mundumirako jabeek 30.000 euro gehiago eskatzen dituztela azaldu du: "Igoera hori onartu ezean, Debagoienean Mundumirarik ez zutela egingo jakinarazi ziguten idatziz. Eskatzen zutena guretako diru dezente da eta hortaz, aldaketarik egon ezean, horretan ez parte hartzea eta beste jaialdi bat antolatzea erabaki genuen. Jaia gaur egungo egoera ekonomikoari eta datorren urtean ospatu behar den herriari egokitu behar dela iruditzen zaigu guri". Kontuan izan behar da, horren harira, Mundumira dagoeneko bailarako herri nagusienetan antolatu dela eta orain txikietan egitea tokatzen dela.

Azken Mundumira Eskoriatzan egin zuten maiatzaren 22tik 24ra bitartean. JOSETXO ARANTZABAL

AURREKONTUA, 154.758 EUROKOA

Aurten, Eskoriatzan egin den munduko kulturen festak 154.758 euro (BEZa barne) inguru balio izan du. Behin betiko datuak oraindik zehaztu barik badaude ere (diru-laguntzen zain daude), Debagoieneko Mankomunitateak %36,5 jarri du; %32,3 inguru Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Turismo sailak eta Eusko Jaurlaritzak; eta gainontzeko %31, 2 enpresa pribatuek. Lasagabasterrek aipatu du, horren harira, babesleak lortzeko arazoak izan dituztela aurten. Gainera, Debagoienean jarraitzeko egoera bideratzeko aukera bazegoela uste dut".

Markaren jabeek, dena den, jarrera hori alda dezaketela jakinarazi digu Lasagabasterrek: "Mankomunitatekoak hitz egiteko prest gaude; oraindik egoera bidera daiteke. Irailean Mundumiraren jabeekin kontaktuak izango ditugu horren harira". Negoziazioek aurrera egiten ez badute, esan bezala, Mankomunitatea prest dago bailaran beste jaialdia antolatzeko. Dena den, zehazteke dute ekimen berri hori nolakoa izango litzatekeen.

DATUA

154.758

EURO

Kopuru horren % 36,52 Debagoieneko Mankomunitateak bideratzen du; %32,3 inguru Gipuzkoako Diputazioak eta Eusko Jaurlaritzak; eta gainontzeko %31,2 enpresa pribatuek jartzen dute.

"ULTIMATUMA"

Mankomunitateak diru gehiago jartzearen harira, Lasagabasterrek esandakoarekin bat dator Mankomunitateko Turismo arduradun Oxel Erostarbe: "Bizi dugun egoera ekonomikoak zaildu egiten du Mankomunitateak Mundumirara diru gehiago bideratzea". Mundumira markaren jabeek mahai gainean jarritako "ultimatuma" ere ez du gustuko izan Elgetako alkateak: "Festak ez du berak bideratu, era berean, datorren urteari begira, jaialdiko markaren jabeek 175.000 euroko aurrekontua aurreikusita dutela (BEZa kontuan izan barik).

Lasagabasterrek uste du jaialdi beraren gaineko hausnarketa sakonagoa egin beharra dagoela: "Esaterako, garraio publikoari, zaborrari edo Gobernuz Kanpoko Erakundeei ez zaie duten garrantzia ematen. Gainera, hain artista ezagunak ekartzea ere zalantzagarria da. Gastua kontrolatu behar da".

JAIALDI BERRIA

Erostabe ez dator bat Lasagabasterrekin: "Mundumira erreferente bihurtzeko Mankomunitateak diru mordoa ipini duenean, Debagoiena eta bertako herriak ezagutzera ematen genituenean eta. oro har, debagoiendarrak jaialdiarekin gustura zeudenean, okerra iruditzen zait jaialdi berri baten alde egitea edo zerotik hastea". Horren harira, esan beharra dago, Mankomunitateko batzordeak markako jabeen proposamena ez onartzea eta jaialdi berria antolatzeko pausuak ematea gehiengoz onartu bazuen ere, hainbat ordezkarik Mundumirakoekin negoziatzeko saiakera egitearen alde azaldu zirela; hain zuzen, Bergara, Oñati eta Elgeta.

Mankomunitateko batzarrean Mundumirarekin jarraitzearen alde bozkatzeko izandako arrazoien berri eman digu Oñatiko alkate Lourdes Idoiagak: "Alde bai, baina aurrekontua gure irizpideetara egokituta. Nik ez nuen nahi negoziazioekin apurtzea. Mundumira Oñatin egin zenean oso harrera ona izan zuen; oso esperientzia polita izan zen". Dena den, uste du horrelako jaialdi erraldoi bat beste herri batzuekin elkarlanean antolatu behar dela: "Herri bakar batendako larregi da. Beste batzuen laguntzarekin eta txandaka egin behar da".

Oñatiko Turismo zinegotzi Ernesto Murgiondo ere Mankomunitateko Garapen eta Turismo batzordetan ibilitakoa da. Oñatiarraren esanetan, "Oñati hasieratik egon da ohiko Mundumiraren alde. Kostata eman zituen jaialdiak lehenengo urratsak eta sendotu denean eta hainbat gauza lortu direnean, pena da hala uztea. Nik uste dut ez dela asmatu erabakian".

Mankomunitateko batzordean proposatutako jai eredu berriari dagokionez, bestalde, Murgiondok honakoa aipatu du: "Kezka daukat ea Mankomunitateak gaitasuna daukan halako jaialdi bat bere kabuz antolatzeko. Ez dakit bitarteko askorik daukan".

NOTIFIKAZIORIK GABE

Bestalde, *Euskal Herria* aldizkaritik, Jesus Mari Perez Arenazak jakinarazi digu oraingoz ez dutela Mankomunitatearen notifikazio ofizialik jaso. Horren harira, esan digu egubakoitzean eskutitza bidali zutela Mankomunitatera bilera bat eskatzeko eta gai horren gainean jarduteko. Batzar hori irailaren bigarren hamabostaldian egitea nahi du aldizkariak. Azkenik, Perez Arenazak honako hau jakinarazi digu: "Bost urte daramatzagu Mankomunitatearekin gustura lan egiten eta nahi dugu jarraitzea". Denborak esango du datorren urtean Debagoienak Mundumira duen edo ez.

MUNDUMIRAREN IBILBIDEA

Bosgarren urratsa egin du aurten Eskoriatzan

2005 urtean hasi zen *Euskal Herria* aldizkariaren, Gin Tonic musika eragilearen eta Debagoieneko Mankomunitatearen arteko elkarlana. Arrasaten egin zuten orain dela lau urte lehenengo edizioa. Bost kontinentetako musika, kale animazioa, natura, gastronomia eta elkartasuna izan zituen oinarri. Ordutik udaberriko hitzordu finkoa izan da Debagoienean Mundumira. Oñatitik, Aretxabaletatik eta Bergaratik pasatu ostean, aurtengo maiatzean Eskoriatzan egin da. *Euskal Herria* aldizkariaren arabera, azken edizio hori ere arrakastatsua izan da. Toki desberdinetako milaka lagun ibili ziren antolatutako 50 ekitaldietan; 8.000 pertsona batu zituen, esaterako, Macaco talde kataluniarraren kontzertuak.

LANAK > OSASUN ZERBITZUAK

Eskualde ospitaleko lanak ondo bidean doaz eta epeak beteko dituzte

2010eko bukaerarako lanak bukatu eta orduan inauguratuko dute zati berritua

Berrikuntzarekin, 74 ohe izatetik 120 ohe izatera pasako da Debagoieneko Eskualdeko Ospitalea

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Debagoieneko Ospitaleko lanak aurrera doaz eta martxa onean. Hala jakinarazi du ospitaleko gerente Jose Luis Angulok. Lehenengo fasea 2011 aurretik bukatuko dutela jakinarazi du; eta gehitu du ospitale berrituan 74 beharrean 120 ohe izango direla.

2010EAN LEHEN INAUGURAZIOA

Asmoa da 2010eko bigarren seihilekoan lanak bukatzea, eta orduan inauguratzea zati berria. Lehenengo fasean eraikinaren zati bat egiten dabiltza anbulatorioaren atzealdean. Eta hori eginda, gaur egungoaren atzeko zatia, zaharra, bota egingo dute. Lanak 50 milioi euroko aurrekontua du.

EAJ-REN ESKAERA

Lanen harira, EAJk salatu du aparkatzea ia ezinezkoa izaten dela eta eskatu du ezinduek eta adin nagusiagoek ospitalera joateko ondoko etxeetako aparkalekuak ahalbideratzea.

Azken hilabeteotan Debagoieneko Eskualdeko Ospitalea berritzeko lanean dabiltza. JOSETXO ARANTZABAL

PRIBATASUNA > AKORDIOA

Herri txikietako biztanleen datuak babesteko akordioa

Zeregin hori bete dezaten laguntza, aholkularitza eta aurrekontua onartuta

I.B. > BERGARA

Astean Gipuzkoako Foru Aldundiak, Datuak Babesteko Euskal Agentziak eta Eudelek hitzarmen bat sinatu dute 20.000 biztanletik behera dituzten udalerrietan herritarren datuak hobeto babes daitezen. Hala, hiru urtetako akordio horren barruan udaletxe txikiei gailuak eta dirua emango zaizkie betebehar hori errazteko.

LANGILEEI PRESTAKUNTZA

Aldundiak 60.000 euroko aurrekontua onartu du 82 udalerritan zeregin horretarako banatzeko. Langileei horren gaineko prestakuntza emango diete; eta Aldundiak berrikusiko du udalek horren gaineko premia gehiago dituzten edo ez.

JOSETXO ARANTZABAL

Sute batek pinudi bat erre zuen Arrasaten

Egubakoitz iluntzean (20:00ak aldera) Arrasateko Musakola auzoan sute bat piztu zen ospitale atzeko pinudi batean. Suhiltzaileak bertaratu eta itzali egin zuten. Baina, zapatuan 06:00ak aldera, Santa Teresa auzoko bizilagun batek deitu zuen sua berriro piztuta zegoela esanez. Hala, 07:30erako guztiz itzali zuten. Hektarea inguru baso erre da guztira.

ISTRIPUA

Talka egin zuten auto eta autobus batek

Auto gidaria Eskualdeko Ospitalera eraman zuten zaurituta

J.BEREZIARTUA. > ESKORIATZA

Domeka goizean GI-3301 errepidean Marulanda auzoan auto batek eta autobus batek talka egin zuten 11:05ean. Kolpe handia izan zen eta autoko gidaria Debagoieneko Ospitalera eraman behar izan zuten. Hala ere, Ertzaintzak jakinarazi zuen gidaria ez zegoela larri.

Istripuaren ondorioz, Eskoriatza eta Leintz Gatzaga arteko errepidea moztuta egon zen ordubetez. Horren ostean, bi noranzkoko zirkulazioa berriro zabaldu zuten.

AP-1EN ERREFORTZUA

Bestalde, oporretako irteera dela-eta, AP-1en hainbat neurri hartu dituzte egunotarako. Hala, besteak beste, aholkatu dute Debagoienetik Gasteizera doazenak Lukuko irteera erabiltzeko.

Horrez gain, Europatik Maroko edo Portugalera doazenek zortzi kabina izango dituzte, bost beharrean. Eta autobideko arduradunek ahalegina egingo dute bidesarietan autoak geldi ez egoteko.

INFORMATIKA > APLIKAZIOAK

Software librearen alde, Mankomunitatean

Onartutakoaren arabera, langileek Firefox nabigatzailea eta Open Office ibiliko dituzte

I.B. > ARRASATE

Mankomunitateak onartu du bertako langileek software librearen alde egitea. Software libreak lau eskubide betetzen ditu: helburua edozein dela ere, exekutatu ahal izatea; aztertu eta aldatu ahal izatea; kopiatu ahal izatea eta hobekuntzak egin ahal izatea.

PAUSOAK BANAN-BANAN

Software librerako eskaera Debagoieneko 50 langilek egin zuten eta sindikatu nagusien babesa du eskaerak. Bultzatzaileak ahalegindu dira pausoak banan-banan ematen langileengan ahalik eta eragozpen txikienak eragiteko eta helburua lortzeko.

Aldaketak 20 bat langileri eragingo die. Irailean Firefox nabigatzaile librea instalatuko diete. Bultzatzaileen esanetan, Interneten nabigatzeko gailu horrek abantaila onak ditu: zuzentzaile ortografikoa eta Euskalbar lan tresna.

Bigarren pausoa izango da Microsoft Office Openofficengatik ordezkatzea. Langileak hori eta Firefox erabiltzera ohitzen badira, 2010erako Thunderbird instalatuko dute posta elektronikoa ibiltzeko. Ordurako, %95a software librean ibiliko dute.

Horrez gain, Oñati, Bergara eta Arrasateko Udaletan ere (informatikariak dituztenak) software librearen alde egiteko eskaera egin dute.

Firefox Internet nabigatzaile oso ezaguna da. GOIENKARIA

EKONOMIA > LANA

Iazko 2. hiruhilekotik %93 igo da langabezia

Eustatek jakinarazi du Gipuzkoan 9.300 langabe gehiago sortu dela iaztik hona, eta langabezia tasa %5,8 izan dela aurtengo 2. hiruhilabetean

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Urte baten, 9.300 langabe gehiago dago Gipuzkoan; hau da, langabezia tasa %93,9 igo da. 2008ko bigarren hiruhilabetea eta 2009ko bigarren hiruhilabetearen arteko aldea da hori. Hala ere, 2009ko lehenengo hiruhilabetearen aldean, 2.600 langabe gutxiago dago Gipuzkoan. Horrenbestez, langabezia tasa %5,8 izan da oraingo hiruhilabetean. Datu horiek Eustatek, Euskal Estatistika Erakundeak, jakinarazi ditu.

GIZONEZKO LANGABE GEHIAGO

Eustatek azaltzen duen moduan, %93,9ko igoeraren arrazoia da biztanleria okupatua –lana duena– %4,7 jaitsi dela, baina biztanleria aktiboa –lana duena eta lan bila dabilena batzen duen multzoa– %1,8 jaitsi dela.

Beste datu deigarri bat da gizonezkoen eta emakumezkoen langabezia tasen arteko aldea: gizonen langabezia %202,3 igo da iazko bigarren hiruhilabetea ezkero, eta emakumeena, %10,5; langabezia tasak, hurrenez hurren, %7,1 eta %4,3 dira. Horren arrazoia da gizonezkoetan biztanleria okupatua %8,3 jaitsi dela, eta emakumezkoetan ez duela aldaketarik izan.

Bergarako obra batzuetan lanean beharginak. MONIKA BELASTEGI

EKONOMIA > ENPRESAK

Fundiciones Lenizeko langile ohiak: "Enpresa ez da itxi"

Joan den astean argitaratutako albiste baten esaten zenarekin ez daude ados: diote enpresa lege konkurtsalean dagoela

L.K. > ESKORIATZA

Joan den astean, uztailaren 20ko zenbakian ASTELEHENEKO GOIENKARIAn argitaratutako *Fundiciones Eskoriatzak, lehen Fundiciones Leniz, ISO 9001:2008 agiria berritu du* izenburua zuen albistean esaten zenari erantzunez, Fundiciones Lenizeko langile ohiek mezu bat helarazi nahi diete herritarrei.

Euren esanetan, "Fundiciones Leniz SA-k, 2009ko uztailaren 22an, lege konkurtsalean jarraitzen du, eta disoluzio-prozesuan dago, artikulu horretan argitaratu zen ez bezala (han esaten zelako enpresa itxi egin zutela)".

"Argitaratutakoaren aurka, eta administratzaile konkurtsalek emandako datuak eskuan, langile bat ere ez dago zuzendaritza taldean, eta enpresarekin duten harreman bakarra soilik lanharremana da", gaineratzen dute.

Langileen egoerarekin jarraituz, Fundiciones Leniz SA-ko langile ohiek azaltzen dutenez, "Fundiciones Leniz SA-ko lehengo langileetatik, Fundiciones Eskoriatzan bakarrik bostek dihardute lanean, eta gainerakoak dira lehengo jabeak eta langile berriak".

"ZORRAK ORDAIN DITZALA"

Gaur egungo egoeraz, hauxe agertzen dute: "2008ko abenduaren 10ean eta batzarrean ados jarrita, Fundiciones Leniz SA-rekin sinatu genuen hitzarmen bat, ERE bat barne, enpresarekiko kontratuak iraungitzeko, eta Gipuzkoako Konbenio Probintzialeko 50. artikuluak eta Langileen Estatutuko 71. artikuluak markatzen dituzten kalte-ordainketak ere hitzartzen ziren (Fundiciones Eskoriatza eta Fundiciones Leniz SA enpresa berbera badira, Eduardo Perez gerenteak dioen bezala, moralki kalte-ordain horiek bere gain hartu beharko lituzke; bestela, inoiz ezingo du esan enpresa handi bat sortzen dabiltzala, zorrak ez dituelako ordaintzen)".

Bukatzeko, hauxe eskatzen dute Fundiciones Lenizeko langile ohiek: "Enpresari exijitzen diogu ez dezala bere burua babestu izen aldaketa baten langileenganako daukan soldata-zor bat (kalte-ordainak) ez ordaintzeko".

etxeko leihotik

Usoa Agirre > 'uagirre@goiena.com'

Egitekoak alboratu eta gozatu oporretan

Ia konturatu gabe, baina iritsi da opor garaia. Zenbat egin kizun, zenbat plan eta zenbat kontu utzi dituzue opor garaian egiteko? Nik asko. Baina seguru nago erdiak ere ez ditudala egingo. Eguneroko jardunean bururatzen zaizkizu milaka gauza egin behar dituzula: hau txukundu, hara joan, hura ikusi... Eta guztiak uzten dituzu opor garairako. Baina iristen da abuztua eta ahaztu egiten zaizkizu egin behar zenituen horiek guztiak, zure buruarekin eta ingurukoekin ondo pasa eta deskonektatzea izaten da momentu horretan zure helburu nagusia. Halaxe pasatzen duzu hilabete guztia: oporretara joan, aspaldi ikusten ez zenuen lagun horrekin topo egin, herri txiki bateko festetara joan, edo Aste Nagusiren batera...

"Konturatu orduko iraila da eta lanera bueltatu beharra daukazu"

Konturatu orduko iraila da. Lanera bueltatu beharra daukazu eta egiteko zenituen horiek guztiak ez dituzula egin konturatzen zara. Bukatu dira deskonektatze egunak, berriz ere denborarik gabe zaude ezer egiteko, lagunekin geratzeko... Estresatu egiten zara eta opor osteko depresioa duzu (ez da existitzen, baina albistegietan inkesta bat edo beste egiteko balio du...). Beraz, ez engainatu zure burua. Badakizu oporretan ez duzula ezer egingo eta ez jarri helbururik. Deskantsatu eta ahal duzun ondoen pasa. Opor on guztioi! Abuztuan lan egin behar duzuenoi, animo! Iritsiko da-eta zuen deskantsu garaia.

> Irteera operazioa

Aurten, lehen aldiz, Herrizaingo Sailaren irteera operazioan aintzat hartu dute Debagoiena. Badakizue, AP-1 autobidea pasatzen da guretik eta dirudienez zirkulazio astuna izango da bertan. Kontuz errepidean!

> Klase ezberdinak

N-1 errepidean ohituta geunden Marokora zihoazen frantziarrak ikusten. Aurten, guretik ere pasa dira asko. Baina ezberdintasun batekin; ordainpeko AP-1etik auto handiak eta luxuzkoak pasa dira Marokora bidean.

EKONOMIA > MONDRAGON TALDEA

Berrikuntza arduradun bat izendatu du Mondragonek

Krisia gainditzeko berrikuntzaren bidetik jo nahi du korporazioak

L.K. > ARRASATE

Mondragon Korporazioko presidenteak, Jose Mari Aldekoak, jakinarazi du taldeak bere antolaketa aldatu duela, krisiari berrikuntzaren bidez aurre egiteko. *Euskadiinnova.net* webguneak argitaratu du hori. Korporazioaren historian lehenengo aldiz, arduradunek presidenteorde exekutibo bat izendatu dute, Javier Sotil, jakintza arloan taldeak dituen tresna guztiak koordinatzeko; hala nola, Mondragon Unibertsitatea, Garaia Berrikuntza Gunea, zentro teknologikoak edo enpresetako I+G unitateak.

ESTRATEGIA

Aldekoaren esanetan, nazioartekotasunak ere jarraituko du ardatz izaten taldearen estrategian, eta gogorarazi zuen kooperatibek "barne doikuntzak" egiten jarraitzen dutela.

Mikel Ubarrechena (Donostia, 1966) Gipuzkoa Ostalaritza-Hosteleria Gipuzkoa elkarteko presidentea da. Gipuzkoa osoko 1.117 bazkide dituzte, horietatik %18 debagoiendarrak dira. Aurreko astean prentsaurrekoa egin zuten ostalaritzaren gaineko datuak emateko. Diote krisiak gogor astindu dituela ostalariak, negozioak %22 egin du behera azken hilabeteotan.

Mikel Ubarrechena > Gipuzkoa Ostalaritza elkarteko presidentea

"Ostalarion esku dago aldarrikatzea Gipuzkoa ez dela Donostia bakarrik"

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Mikel Ubarrechena kezkatuta dago krisiak ostalaritzan izan duen eraginarengatik, baina etorkizuna nahiko ondo ikusten duela esan digu. Debagoieneko ostalaritzaren egungo egoeraren gainean egin digu berba, besteak beste.

Zer da Gipuzkoa Ostalaritza elkartea?

1977. urtean sortu zuten elkartea da. Gure kide guztiei ostalaritzako enpresa txikien beharrei egokitutako aholkularitza osoa ematen diegu. Gipuzkoan bakarrak gara ostalaritzarako bakarrik den zerbitzu osoa eskaintzen dugunak. Elkarteko kide guztiek doako aholkularitza jasotzen dute haiei dagozkien hainbat gai profesionaletan.

Era berean, elkarteak enpresa-kudeaketarako irtenbideak eskaintzen ditu; besteak beste, gai fiskalak, kontabilitatekoak eta lanekoak konpontzen laguntzen dugu. Hala, gure elkartea, ostalaritzako sektoreari bakarrik zuzentzen zaion gestoria espezializatua da.

Gainera, gurekin 20 urte baino gehiago daraman lan talde profesional baten bermea dugu.

Joan-etorriak ekiditeko sistema informatiko telematikoak eskaintzen ditugu, administrazioarekin tramiteak arinduz. Hala, bazkidearenganako arreta bermatzen dugu.

Aholkularitza guztiz doakoa da. Dena den, gestoria zerbitzu batzuengatik kuota txiki bat ordaindu beharko dute.

1.117 bazkide dituzue Gipuzkoa osoan, baina zein da ostalaritzaren egungo egoera?

Gipuzkoako ostalaritza erreferente inportantea da Espainiako ostalaritzaren barruan, baina ezin dugu ukatu krisiak kalte egin digula.

Jendarteak diru arazoak dituenean beste sektore batzuetan baino azkarrago nabaritzen dugu ostalaritzan. Gure egoera gizartearen egoera nolako den ezagutzeko balio du, termometro antzeko bat gara. Orokorrean negozioak %22 egin du behera Gipuzkoan.

Gaur egun une txarrak bizi ditugu, baina guk lanean jarraitzen dugu. Hain zuzen ere, krisi egoeratan jarri behar gara etorkizunari begira, besteak beste, irudimena indartu eta proiektu berriak garatzeko. Horretan dihardugu lanean.

Mikel Ubarrechena, Gipuzkoa Ostalaritza elkarteko presidentea. GOIENKARIA

KRISIA

"Orokorrean ostalaritzak %22 egin du behera Gipuzkoan krisiaren eraginez"

Eta Debagoieneko ostalaritzaren egoera?

Gipuzkoaren egoera eta Debagoienekoa oso antzekoak dira. Krisiak guztiei eragin digu.Adituek diote aspaldiko udarik txarrena izango dela ostalaritzarendako, baina guk uste dugu Gipuzkoan ez dela horren txarra izango.

BAZKIDEAK

"Debagoienean ditugun bazkideak Bergarakoak, Arrasatekoak eta Oñatikoak dira"

Agian ez ditugu horrenbeste egonaldi luze izango, baina gure ustez gipuzkoarrok izango gara Gipuzkoarendako turista onenak.

Zenbat bazkide dituzue Debagoienean?

Bazkideen %18 inguru Debagoienekoak dira. Gehienak, Bergarakoak, Arrasatekoak eta Oñatikoak dira. Aldiz, ez ditugu bazkiderik Aretxabaletan eta Eskoriatzan. Horiengana heldu gura dugu. Irailean bazkide berriak lortzeko kanpaina egingo dugu bazkiderik ez dugun eskualdetan. Elkartearen berri emango diegu. Gure ustez bazkide ez direnek ez dute elkartea ezagutzen. Hortxe dago gure erronka: ezagutzera ematea!

ETORKIZUNA

"Irailean bazkide berriak lortzeko kanpaina hasiko dugu; gure aldizkaria bidaliko diegu guztiei"

Gipuzkoako ostalaritzaren gaineko egoera ezagutzeko hainbat bilera egin dituzue, horietako bat Bergaran. Zer kezka dituzte Debagoieneko ostalariek?

Hasteko esango dut Gipuzkoa osoko ostalariok kezka komunak ditugula. Gero eskualde bakoitzean arazo espezifikoak dituzte, adibidez, delinkuentzia. Debagoieneko ostalarien kezka nagusia da Gipuzkoan ez dituztela asko ezagutzen. Euren aldarrikapen nagusia da Donostiara joaten diren bisitariei jakinaraztea Debagoienean ikusteko gauza asko dagoela.

Horren harira, Aldundiarekin bilduko gara errepideetan Debagoieneko turismo eskaintzaren eta ostalaritzak dituen zerbitzuen berri ematen duten seinaleak jartzeko.

Gipuzkoa Ostalaritza elkartearen esku dago erakustea Gipuzkoa ez dela Donostia eta kostaldea bakarrik.

Zergatik da inportantea ostalari guztiak batuta egotea?

Guztiok ditugun arazoak berdintsuak direlako. Gipuzkoako ostalaritzaren ezaugarri nagusiena gastronomia da. Goi mailako sukaldaritza, pintxoak, erretegiak, sagardotegiak… guztiak ditugu herrialde txikia garen arren. Ezaugarri hori indartu behar dugu. Gipuzkoa osoarik saldu behar dugu ostalarion artean.

Baduzue ostalaritza indartzeko egitasmo zehatzik?

Lanean gabiltza. Lehen-lehenik elkartean egiten dugun aldizkaria ostalari guztiei bidaliko diegu, bazkide direnei eta ez direnei. Ondoren *e-posta* bidez gure zerbitzuen berri emango diegu. Bestalde, eskualdeka bilerak sarriago egin nahi ditugu bazkideen kezkak ezagutzeko.

Elkarrizketa irakurri eta zuen bazkide egin nahi dutenek, zer egin behar dute?

Donostiako egoitzara dei dezakete (943 31 60 40) eta Ainara Ugartemendiarengatik galdetu. Taberna, kafetegi, pub, ostatu, hotel edo pentsio baten jabe direnak egin daitezke bazkide. Urteko kuota ordaindu beharko dute (160 euro) eta aholkularitza emango diegu.

Kutxa Inbertsio-Irtenbideak

Ez duzulako galtzea jasaten.

EUROLIDER
GORDAILU BERRIA

IRABAZTEKO ASKO,
GALTZEKO DEUS EZ.

%100
BERMATUTA

Errentagarritasun handiko aukerak eta zure kapitalaren %100 bermatuta dituen gordailua. Etorri **kutxa**ra eta galde iezaguzu.

Euskо Jaurlaritzak baimendutako publizitatea, 090203 espediente zk.-duna.

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

kutxa

kale inkesta

Abuztuan denda eta komertzioak zabalik mantentzearen aldekoa zara?

Ana Maria Olabarria
Etxekoandrea
Aramaio

Nire ustez txandaka hartu beharko zituzten oporrak. Hobeto izango litzake guztiontzat. Horrela eginez gero, dendariek-eta atseden hartzeko aukera izango zuten eta herrian gelditzen direnak erosteko.

Socorro Alonso
Erretiratua
Bergara

Kanpora joaten naiz eta abuztu amaiera arte ez naiz bueltatzen. Hala ere, nire ustez, hainbat denda zabalik egon beharko ziren abuztuan ere, gelditzen direnak bizimodu normala egiteko eskubidea dute-eta.



Jose Ramon Aiastui
Erretiratua
Bergara

Komertzio gehienak itxita egoten dira. Ni ez naiz Bergaran gelditzen, baina entzuten dudana da. Jabeek ikusi beharko dute errentagarria den edo ez komertzioa zabalik edukitzea eta horren arabera erabaki.

Juan Atxaga
Langilea
Aretxabaleta

Jendea ez baldin badago, askotan alferrik izaten da dendak zabalik mantentzea. Ni herrian gelditzen naiz eta kexu naiz ez dudalako ezer irekita aurkitzen, hala ere ulertzen dut ez zabaltzea, lau katu gelditzen gara.

irakurlearen txokoa

943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

BERGARA

> Artekaleko galtzada-harriak konpondu barik

Bergarako Artekale kalean galtzada-harriak jarri zituzten aspaldi; antza, oinezkoendako kale bihurtu behar zuten. Hala ere, autoek bertatik igarotzen jarraitzen dute eta hainbat apurtu dituzte. Bertako bizilagun batek arazoak izan dituela azaldu digu, "pare bat aldiz jausi naiz dagoeneko eta ez naiz bakarra. Jende nagusi asko bizi da hemen. Noiz konponduko dute kalea?"

ARRASATE

> Ferixalekuko igogailuaren itxurak kexak eragin ditu

Duela gutxi amaitu zuten Ferixaleku-Altamira inguruko igogailua. Orain, Gernika pasealekua eta Jose Luis Iñarra kalearen goiko aldea gertuago daude. Hala ere, oso eraikin handia da eta bertako bizilagun batek idatzi digu igogailuaren itxuraz kexu. "Handiegia da eta metalezkoa, ez da bat ere ondo gelditzen inguruarekin; gainera, nire ustez, ez da oso praktikoa".

BERGARA

> Bergara eta Arrasate arteko saihesbidea

Aste asko eman dituzte Bergara eta Arrasate arteko saihesbidea konpontzen. Obren amaiera urrun ikusten zutenek asko kexatu dira honengatik, baina dagoeneko bukatu dute eta badirudi bergararrak oso pozik daudela. Hain zuzen ere, bergarar batek deitu digu hori bera esanez: "Benetan gustura nago saihesbide berrituarekin, orain gustura pasatzen naiz handik".

usteak uste

Nerea Menor

Agur eta ohore Jam aretoa

Gaur baieztatu didate aspalditik kezkatzen ninduen zurrumurrua. Jam aretoa Guass aretoa bihurtuko da iraletik aurrera.

Itxierak ekarri dizkit burura bertan bizitakoak. 14 urterekin ikusi nuen nere aurreneko kontzertua bertan, eta egun horretatik aurrera bertako egutegiak erakutsi zizkidan orain gurtzen ditudan hainbat talde. Metal edota rockaren doinuak jarraituz, batera mugitzen genuen burua dagoeneko horren ezezagunak ez ginen lagunak. Badirudi hemendik aurrera Bilbora joan beharko garela gure tximak mugitzera.

Bergara bezalako herri batean Tecno hotza errentagarriagoa da antza, baina tristeagoa ere bai. Musika kultura izanik, musika anitzak multikulturalismoa ekarriko luke herrira.

Beti izango zaitugu gogoan, ez adiorik, hurrena arte.

zorroztailea

Joxemari Muxika

Debagoiena eskualdea sustatzea

"Ikasturtea errematatzea, hori falta zaie Bergarako pilotariei, Gipuzkoako herri arteko tituluarekin konformatu ez eta Euskal Herriko garaikurra ekartzea; eta bihar egin ahal izango dute, Legutioren kontra. Puntako pilota taldea dauka Bergarak, eta egubakoitzeko kanporaketan erakutsi zuten".

Bergarak zain du Euskal Herriko txapela, Zornotzan

Goienkaria > 2009-07-24

Marka azpimarragarria da Bergarako pilota taldeak egin duena, Gipuzkoako txapeldun izan eta Euskal Herriko finalera iritsi eta Legutioren aurka jokatu eta irabazi. Euskal Herriko txapeldun izatea izugarrizko meritua da.

Badakit bergarar asko poztu direla, neroni ere izugarri pozten naiz egin duten lorpenarengatik. Zer dugu esateko eskualdeko herritar bezala? Beste herrietako pilotariak txapelketa bidean geratu direnez, bergararrak izan beharko lukete eskualdearen ordezkari modura tratatuak. Okasio ederra eman digu Bergarako pilota taldeak euren arrakasta ez Bergarako herritarrena bezala bakarrik, baizik eskualdeko herritar guztiona bezala gozatzeko eta ospatzeko.

Askotan Debagoiena eskualdeaz presumitu izan dugu, EAEko 4. hiriburua garela eta horrelakoak entzun eta esan izan ditugu. Herri bakoitzak bere aldetik hiri estatusa lortzeko masa kritiko txikiegia du, baita handienak ere, eta zaila izango da Debagoienari gorputza ematea elkarrekin ez bada. Zerbait baino gehiago egin beharra dago garapenari indarra emateko, bestela Donostiatik urrun bizi garenez ahaztu egiten dira gutaz eta Gasteiz eta Bilbok kontsumatzaile bezala euren salmentak hazteko baino ez gaituzte kontutan hartzen.

"Debagoienari gorputza ematea zaila da, elkarrekin ez bada"

"Ez dugu gure artean lehiatu behar"

Ez litzateke gaizki etorriko Debagoieneko garraio kolektiboa; turismoa; hezkuntza; zaborra jasotzea; aisialdia; etxebizitza; merkataritza eta beste hainbat arloren garapena eskualdeko herri guztiek batera planifikatzea, geure presentzia aginte tokietan haintzat hartua izan dadin, baina honek alderdiek eta herriek batera jokatzea eskatzen du, ez elkarren artean norgehiagokan jardutea.

Pilota talde honen garaikurrak ematen digu debagoiendarroi eskualdeko batasuna azaltzeko aukera, eta kirol entitatei dagokiela uste dut berau bideratzea. Bere garaian Euskara Elkarteek horrelako zerbait egin zuten herrietako euskarazko komunikabide guztiekin Goienkaria eta GOITB martxan jarriaz. Honelako aukerak onak izan daitezke eskualdea kohesionatzeko.

Zorionak talde Txapeldunari eta baita beste Debagoieneko pilota taldei ere.

Goienkaria

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Iker Barandiaran **Erredakzioa** Jokin Bereziartua, Nerea Menor **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale • **Difusioa:** 4.383 ale

Goiena

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Herriak

Arrasate > 12 **Bergara** > 13 **Oñati** > 14 **Aretxabaleta** > 15 **Eskoriatza** > 15
Antzuola > 16 **Aramaio** > 16 **Elgeta** > 16 **Leintz Gatzaga** > 16

> ARRASATE
Igogailuak ipintzeko 12.000 euroko dirulaguntza bideratu berri du Udalak **> 12**

> BERGARA
Abuztua herrian igaroko dutenendako, kultura eskaintza zabala Udalaren eskutik **> 13**

> OÑATI
San Martingo eta Kasablankako etxeetarako zerrendak ikusgai daude dagoeneko **> 14**

ESKORIATZA > ELKARTEAK

Batzorde berriarekin aurrera egingo du Amuskak oporren ostean

LEKUKOA
Belaunaldi-lekukoa egiteko arazoak eduki dituzte azkenaldian

BILERA
Joan den uztailaren 15ean eduki zuten bileran erabaki zuten elkartearen etorkizuna

ASKOTAKO EKINTZAK Amuska emakume elkarteak mota askotako ekintzak egiten ditu; argazkian, margo ikastaroa. GOIENKARIA

NEREA MENOR > ESKORIATZA

Duela 24 urte sortu zen Amuska emakumeen elkartea Eskoriatzan. Ordutik askotariko ekintzak antolatu dituzte, eta herriko giroa piztu dute. 145 bazkide lortu dituzte urte guzti hauetan zehar, baina belaunaldi-lekukoa egiterako orduan arazoak aurkitu dituzte. "Batzordean sartzeko deia egin genuenean konturatu ginen inork ez zuela kargurik hartu nahi", dio Gurutze Idigorasek, Amuskako idazkariak.

Gainera, urtez urte elkarteak jasotzen dituen diru laguntzak geroz eta baxuagoak dira eta aurten ere kopurua jaitsiko dela uste dute.

Batez ere lekukoaren arazoarengatik, elkarteko hainbat bazkide Amuska desegitearen alde agertu ziren; besteek, aldiz, egitasmoarekin aurrera jarraitu nahi zuten. Arazo honekin behingoz amaitzeko, uztailaren 15ean, bilera bat antolatu eta bozkatu egin zuten.

BATZARTU ONDOREN, ERABAKIAK

Bileran tirabirak egon zirela azaldu digu Idigorasek. "Batzordean sartu nahi ez zuten asko, bileran karguak hartzeko prest azaldu ziren".

145 bazkideetatik 30 bakarrik azaldu ziren bilerara, baina beste batzuen botuak eraman zituzten; guztira 50 bozka eman ziren: 25 elkartea desegitearen alde eta beste 25 aurka. "Berdinketa zelaeta, Amuskarekin aurrera egitea erabaki genuen. Bertan egon ez ziren bazkideak iritzia emateko eskubidea zutela erabaki genuen. Elkartetik joateko aukera beti dute hor", azaldu digu idazkariak.

Hiru ordu laurden iraun zuen batzarrak eta ekintzen eskariaren gainean ere aritu ziren. Irailean batzordearen bigarren bilera egiteko asmoa dute: "Junta eraberritu nahi dugu, bertako sei elkartea etetearen aldekoak dira-eta", dio Amuskako idazkariak.

ESKULANAK UDAZKENEAN

Abuztuan hartuko duten atsedenaldiaren ondoren, urte hauetako ildo berarekin jarraitzeko asmoa du Amuskak. "Diru laguntzekin zer gertatzen den ikusi beharko dugu. Hala ere, buruan baditugu urriko bigarren astean antolatzen ditugun eskulan ikastaroak", diote elkartean.

AMUSKA EMAKUME ELKARTEAREN HISTORIA

1985EAN SORTUTAKO EMAKUMEEN ELKARTEA

> Eskoriatzan bizi ziren sei-zazpi emakume inguru plazan elkartzen ziren egunero semealabekin. Herriaren gainean jarduten zuten eta emakumeendako, bereziki, ezer aurkitzen ez zutenez, elkarte bat sortzea erabaki zuten. Horrela sortu zen Amuska 1985ean, emakumeak euren eginbeharrak alde batera laga eta lasaitzeko gune modura.

ARAZOAK AHAZTEKO GUNE BEREZIA

> Soinketa saioekin hasi ziren; orain eskulanak egiten dituzte askotan. Emakumearen egunean afariak egiten zituzten, orain aldiz, irteerak. Garai ezberdinak izan arren, ideia bera da oraindik ere. "Barrena lasaitzeko lekua da Amuska niretzako. Arazoak alde batera laga eta guretako bakarrik diren momentuak bizitzen ditugu elkartean", dio Gurutze Idigorasek.

TALDE HETEROGENEOA

> 20-30 urtetik hasita 80 urte arteko emakumeek osatzen dute Amuska. Irakasleak, etxeko andreak, dendariak... Oso talde heterogeneoa osatzen dute. Hala ere, 70 urtetik gorako emakumeek osatzen dute elkartearen zatirik handiena, eta jende gaztearen beharra dutela adierazi digute. "Neska gazteak Amuska ezagutzera animatu nahi ditugu. Ideia berriak ondo hartuko ditugu", diote elkartekoek. "Bertan izena emateko elkarteko bazkideren batekin harremanetan jarri eta honek azalduko dizue guztia".

HERRIKO EKINTZETAN ERE LAGUNTZEN DUTE

> Emakumeen inguruko ekintzez gain, Udalak antolatutako jardueretan ere hartzen du parte Amuskak: Olentzero egunean edota txokolatadan antolatzaile lanetan ibiltzen dira.

ETORKIZUN ABERATSA

> Etorkizunerako nahi garrantzitsuena elkartearekin jarraitzea da eta horretarako lanean dihardute. Eskoriatzan halako gune bat egotea nahi dute.

Pasa den asteburuan lanean ibili den taldea, Santikurtz ermitan. JUDITH ARRIOLABENGOA

ARAMAIO > ONDAREA

Santikurtz ermita konpontzeko azkeneko deialdia

Egubakoitzean, hilaren 31n, ermita margotuko dute; materiala igotzeko laguntza behar da

IKER BARANDIARAN > ARAMAIO

Pasa den asteburuan 16 bat herritar ibili dira Santikurtz ermitako teilatua konpontzen, eta margotzen ere hasi dira. Lanak bukatzeko hitzordua jarri dute egubakoitzean, hilaren 31n; 08:30ean, goian.

Santikurtz ermita Urkiolako parke naturalean dago, Arangioko haitzetan. Handik paisaia ederrak ikusten dira eta mendizale askok egiten dute geldiunea han.

Hara materiala igotzeko, baina, jende askoren laguntza behar da, bide aldapatsua delako.

OÑATI > MADALENA JAIAK

Ekitaldiz beteta egon da asteburua Madalena auzoan

Urdax 11 urteko harri-jasotzaileak ikusmina piztu zuen atzoko, domeka, erakustaldian

I.B. > OÑATI

Aurreko asteburuan Oñatin inolako jairik egon ez zen arren, oraingoan Madalena auzokoek hartu dute lekukoa; eskerrak. Are gehiago, asteburua ekitaldiz lepo eduki dute.

Gorriti eta bere animaliak han izan ziren, baita Urdax 11 urteko harri-jasotzailea (argazkian), mus txapelketa jendetsua, Bitz eta Nealta Fola taldeen eskutik rock kontzertua eta beste. Adin guztietarako plana!

Harri-jasotzaile gaztetxoa erakustaldia egiten. JOSETXO ARANTZABAL

TXOMIN MADINA

OÑATI > ARTZAINTZA

Arantzazun egin zuten erakusketa

Oñatiko Artaso elkarteak artzaintzarekin lotutako erakusketa egin zuen herenegun, zapatua, Arantzazun. Bigarren aldia da egiten dutena eta Oñatiko zein Gipuzkoako beste herri batzuetako artisauak ekarri zituzten. Antolatzaileen helburua zen artzaintzarekin lotutako langintzak erakustea: haria teknika zaharrekin egitea, artilea lantzea, zeramika, otargintza, egurraren langintza, albarkagintza eta beste. Santiago eguna zela-eta, jende asko ibili zen erakusketa ikusten.

ARRASATE > KALE IKUSKIZUNAK

Kale ikuskizun ibiltariak desagertzear daudela dirudi

I.B. > ARRASATE

Askotan esan ohi da kulturak kalean egon behar duela; han sortutakoa dela eta han izan behar duela bere espresabide nagusia. Badira, baita ere, antzerkia kalean eta jendearengana eroan behar dela diotenak.

TXOTXONGILOAK

Kontuak kontu, gero eta kale-ikuskizun ibiltari gutxiago ikusten dira, eta badirudi desagertu direla. Baina, halako baten, egubakoitzean Arrasaten halako txotxongilo ikuskizuna aurkitu genuen.

Txotxongilo ikuskizuna, egubakoitzean, Seber Altube plazan. JOSETXO ARANTZABAL

Atzo arratsaldean umeek jolasak egin zituzten. JOSETXO ARANTZABAL

ARRASATE > FERRERIASKO JAIAK

Herriko kale zaharrenetakoaren jaiak bizi-bizirik dirau

Ferrerias kaleko freskotasunean murgildu ziren hainbat eta hainbat arrasatear atzo

I.B. > ARRASATE

Urtero moduan, Ferreriasko jaiak eta Kuba iraultzaren aldarrikapenek bat egin dute. Hala, atzo, domeka, Arrasateko kale zaharrenetako bat deneko bizilagunek dotore ospatu zuten jaia; eta ez eurek bakarrik, baita bertaratutakoek ere.

Eguerdian txistularien kalejira giroan sartzeko; eta arratsaldean umeen jolasak, txistularien kalejira, herri txikiteoa eta beste.

AFARI JENDETSUA

Horren ostean, kalekoendako auzo afaria eta dantzaldia.

BERGARA > GOIMENDI ETA BASALGOKO JAIAK

Auzo txikietan ere jaiak ondo baino hobeto ospatzen dituzte

Asteburuan Bergaran, Goimendi eta Basalgo auzoetan Santiago jaiak ospatu dituzte: bertsolariak, umeendako jolasak eta beste izan dira

IKER BARANDIARAN > BERGARA

Kaletik urrun dauden arren, ez dira kaletarrei begira egoten Basalgo eta Goimendiko auzotarrak jaiak ospatzeko. Biek hala biek, bertsolariak, dantzaldiak,umeendako jolasak eta beste izan dituzte asteburuan.

Beroak eragin die batzutan, batez ere arratsaldeko ekintzetan; baina eguna apur bat freskatu ahala ekitaldiek gero eta harrera hobea izan dute.

BERTSOLARI DOTOREAK

Hain zuzen ere, nabarmentzekoa izan da eraman dituzten bertsolariak, ospea dutenak: Basalgora, Xabier Amuriza eta Anjel Mari Peñagarikano; eta Goimendira, Joxe Agirre eta Jesus Mari Irazu, hain zuzen ere.

Kioskoko musikariek eta goimenditarrek ondo eutsi zioten orekari eta dantzari. J.A.

Eguraldi onaz lagunduta, giro ederra Basalgon. GOIENKARIA



DENBORA GEHIAGO KART-ean
Lortu denboraren %20a gehiago tanda bakoitzean

DEBAGOIENERAKO ESKAINTZA BEREZIA :
ABUZTUAREN 4tik 9ra, GASTEIZKO JAIETAN
ERAMAN IRAGARKI HAU ARRATSALDEKO 17.00etatik 21:00etara ETA ESKAINTZA BEREZI HONETAN PARTE HARTUKO DUZU

KARTING BI-BULT
Bekolarra 13
(Mercedes-etik 50 m-tara)
Tel.: 945 24 18 68



DIRULAGUNTZAK > 2009KO DIRULAGUNTZA BERRI BI, ERAIKINEKIN LOTUTAKOAK

Igogailuak ipintzeko 12.000 euroko udal dirulaguntza dago

Igogailu berriak ipintzearren ematen du Udalak dirulaguntza, ez zaharrak ordezkatzearren

Fatxadak berritzeko ere ematen ditu dirulaguntzak, lehengoak baino zabalagoak

UBANE MADERA > ARRASATE

Erantzun ona eskuratzen dihardu Arrasateko Udalak aurtengo dirulaguntza programan eraikinen berrikuntza bultzatzeko bideratu dituen bi dirulaguntza berrirekin: igogailuak ipintzeko dirulaguntza eta fatxadak berritzekoekin.

BARRUAN EDO KANPOAN

Igogailuekin lotutako dirulaguntzei dagokienez, eska daiteke dirulaguntza igogailua eraikinaren barruan edo kanpoan, bietan ipintzearren. Izan ere, zenbait kasutan eraikinaren barruko aldean ez da lekurik izaten igogailua ipintzeko.

Hori bai, badira salbuespenak. Adibidez, kanpo geratzen dira igogailuak ordezkatzeko obrak, igogailuak jartzea familia bakarreko etxeetan, bi familiako etxeetan edo etxe txikietan; eta baita ere, igogailuak jartzea lurzoru hiritarrezinean.

DISEINUA ERRESPETATU BEHAR

Era berean, Hirigintza Sailetik azpimarratu gura izan dute igogailuak kanpoan ipini izan dituzten zenbait kasutan arazoak gertatu direla diseinuarekin. Berez, igogailua kanpoan ipintzen den kasuetan, haren diseinua bateragarria izan behar da eraikinaren diseinuarekin, eta hori ez da beti errespetatu izan; bereziki, igogailu horiek ipintzen dituzten enpresen eskutik. "Hori ekiditeko eta halako jarrerak ez ugaltzeko lanean" dabiltzala azaldu dute Udaletik.

BI HILABETEKO EPEA

Kontuak kontu, dirulaguntzak eska daitezkeela igogailuak ipintzeko. Ematen duten laguntza da 12.000 euro. Eta dirulaguntza eskatzeko epea da bi hilabetekoa, igogailua erabili edo abian jartzeko lizentzia ematen dutenetik. Eskaerak Biztanleen Arreta Zerbitzuan aurkeztu behar dira.

Aspaldian etxe zaharretan igogailuak jartzen dabiltza. U.M.

FATXADAK BERRITZEKO ERE BAI

Fatxadak berritzeko dirulaguntzei dagokienez, berriz, Hirigintza Sailetik azaldu dute Arrasateko Udalari "interesgarria" iruditzen zaiola udalerriko eraikinen fatxadak "txukun mantentzea" eta horrexegatik hasi direla fatxaden berrikuntza obra orokorrak egiteko dirulaguntzak ematen. Kasu horretan, dirulaguntzak eska daitezke fatxadak margotu edo zahar-berritzeagatik (lehen bakarrik margotzeagatik); edo, beste adibide bat ipintzearren, fatxadetako ugerra kentzeagatik. BAZera jo behar da eskabideak aurkezteko.

OBRAK > SAN JOSEPE

San Josepe kalea osorik berritu gura du Udalak

Abaroa berriaren atzeko errepideari jarraipena eman ahal zaion aztertuko dute

U.M. > ARRASATE

San Josepe kalea goitik behera urbanizatu gura du Arrasateko Udalak, eta hori egin ahal izateko proiektua idazteko lehiaketa deitu du.

Udaleko Obra Sailetik azpimarratu dutenez, egin gura duten proiektua handia da; eta horren ondorioz, 97.900 euroko aurrekontua eta sei hilabeteko epea ezarri dute lehiaketarako.

Halakoetan ohi den moduan, proiektua idaztean zehaztuko dute nondik norako obrak izango diren egin ditzaketenak, baina, oro har, Obra Sailaren helburua da inguru guztia berritzea. Hau da, espaloiak egin, ur eta argi sareak lurperatu, oinezkoendako pasabideak egokitu eta nabarmenena: Udalak gura du aztertu ea posible den Abaroa berriaren atzeko aldetik pasatzen den errepideari jarraipena ematea, Umezaintzatik aurrera.

OBRAK > SAN ISIDRO ZUBIA

Musakola auzoko San Isidro zubia egokitu egingo dute, uholde arriskua saihesteko

Zubiaren azpiko aldean dagoen arkua kendu, eta haren lekuan hormigoizko zutabeak ipiniko dituzte

UBANE MADERA > ARRASATE

Arrasateko Udalak onartu du San Isidro zubia berritzeko behar diren lurrak desjabetzeko espedientea hastea. Horrek esan gura du lursailak eskuratu ostean, obra hasteko moduan izango direla.

Eusko Jaurlaritzari dagokio obra egitea. Momentuz ez dute jakinarazi noiz hasiko diren, baina Arrasateko Udalari egindako kontsultaren arabera, badirudi laster hasteko asmoa dutela.

San Isidro zubiak gaur egun arkua dauka oinarri. U.M.

ZUBIAK GAINEZKA EGIN DEZAKE

Eusko Jaurlaritzak 1999an egindako txostenaren arabera, ur etorria baldin badago, zubiak gainezka egin eta Musakolako, inguruak urez beteko lirateke, lurraren maila 0,40 metroan gaindituz.

Horrela, labur esanda, San Isidro zubiaren azpiko aldea egokitu gura dute. Besteak beste, gaur egun arkua da zubipea; ba arkua kendu eta hormigoizko bi zutabe ipiniko dituzte zubia eusteko.

Zubia bera, berriz, hormigoizko losa sinplea izango da. Eta horrekin batera, besteak beste, errekaren ubidea ere egokituko dute. Bi metroko harri lubeta eraikiko dute han.

ERMITAREN AURREKO ALDEA

Zubiaren gainetik pasatzen den errepideari dagokionez, berriz, aldaketa gutxi egingo dizkiote, proiektuaren arabera.

Hori bai, San Isidro ermitaren ondotik pasatzen den errepide zatia hobetu egingo dutela iragarri dute. Hain justu ere, errepidea ermitarengandik apurtxo bat aldentzea da helburua. Eta, era berean, handitu egingo dute ermitaren sarreraren fatxadan dagoen gunea.

OINEZKOENDAKO BIDEA

Eta horrekin guztiarekin batera, San Isidro ermitaren ondoan dagoen Axerikoa baserria eta ermita bera elkarren artean lotuko dituzte, oinezkoendako pasabidearen bitartez; izan ere, espaloia egokituko dute.

> LAN ESKAINTZA

Bi lanpostu bete gura ditu Udalak, opor aurretik

Sei hilabeterako bi langile behar ditu Arrasateko Udalak: pintore ofiziala eta elektrikari ofiziala. Adi ibili, izan ere, interesa dutenek uztailaren 30era bitarteko (eguena) epea dute izena emateko, Biztanleen Arreta Zerbitzuan.

Diputazioak bultzatutako Enplegu Sustapen Programaren barruko eskaintza da.

> KULTURA

Opera eta musikala ikustera joateko irteerak, Bilbora

Las Bodas de Figaro opera eta *Fiebre del Sabado Noche* musikala ikustera joateko irteera antolatu du Iturripe elkarteak. Bi ekitaldiok datorren urteko maiatzean dira, baina Iturripe elkartetik abisatu dute dagoeneko sarreren erdiak salduta daudela. Hala, interesa dutenek lehenbailehen egin behar dute eskaera. Jabier: 620 55 99 79.

KULTURA > ABUZTUKO AGENDA

Abuztua herrian igaroko dutenendako kultura eskaintza zabala prestatu dute

Antzerkia eta musika saioak egongo dira, azkeneko urteetan ez bezala

Eskaintza berriarekin batera, ohiko San Martin plazako film emanaldiak egingo dira

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Abuztua heltzear da eta dagoeneko eman du ezagutzera Kultura zerbitzuak abuztuko agenda.

Aire librean egingo diren ekitaldiak nabarmenduko dira: musika eta antzerki saioak eta film emanaldiak, batik bat.

MUSIKA SAIOAK

Musika emanaldiak Espoloian izango dira, 22:00etan. Abuztuaren 5ean Miguel Salvador Project jazz taldeak egingo du emanaldia. Salvador Portugaleten bizi den gitarra jotzaile bilbotarra da. Bakarka jardun ostean 2007an taldea eratzea erabaki zuen. Salvadorrekin jardungo dute Jonahan Hurtado (pianoa), Hasier Oleaga (bateria) eta Jon Piris (kontrabaxua).

Abuztuaren 19an, Casual Blues seikoteak egingo du emanaldia eta 26an, Organiks taldearen soul eta blues doinuak entzuteko aukera egongo da.

JAIAK AUZOETAN

Hainbat jai ere izango dira abuztuan barrena, gehienak auzoetakoak. Hala, jaiak ospatuko dituzte abuztuaren 15ean, Elexamendin; abuztuaren 24an, San Bartolome jaiak Angiozarko Zabaletamendin; abuztuaren 28tik 30era, Kofraixak Osintxu auzoan eta abuztuaren 29an, San Lorentzo auzoan. Horrez guztiaz gain, hilaren 16an, San Roke izango da, Bergarako patroia.

Zinemari dagokionez, lau film ikusteko aukera egongo da, ohi bezala, abuztuko eguenetan, 22:00etan, San Martin plazan egokituko duten pantaila erraldoian.

Antzerkia ere izango da. hain justu, Hortzmuga taldeak *Olympikas 2012* kale antzerkia egingo du abuztuaren 26an, 20:00etan.

Aurreko urteetan baino egitarau zabalagoa antolatu du Udalak aurtengo. Arrazoia da batetik, oporretako ohiturak aldatu direla eta abuztuan ere herrian geratzen dela jendea; bestetik, krisiaren eraginez uste dutela jende gutxiago aterako dela.

Aire libreko zinema

Abuztuak 6
Slumdog millionaire (euskaraz.)

Abuztuak 13
Crepusculo (gazteleraz).

Abuztuak 20
Sukalde kontuak (euskaraz).

Abuztuak 27
Gran Torino (gazteleraz).

OHARRA: Emanaldi guztiak izango dira 22:00etan, San Martin plazan.

Miguel Salvador Project taldeak abuztuaren 5ean egingo du emanaldia. GOIENKARIA

Abuztuko egitaraua egunez egun

Uztailak 24-abuztuak 9
Mikel Garateren margo erakusketa, Aroztegi aretoan.

Abuztuak 5
22:00 Miguel Salvador Project taldearen jazz kontzertua, Espoloian.

Abuztuak 15
Elexamendi auzoko jaiak.

Abuztuak 16
San Roke, Bergarako patroia.

Abuztuak 19
22:00 Casual Blues taldearen kontzertua, Espoloian.

Abuztuak 24
20:00 Hortzmuga taldearen *Olympikas 2012* kale antzerkia, San Martin plazan.
San Bartolome jaiak Angiozarko Zabaletamendi auzoan.

Abuztuak 26
22:00 Organiks taldearen soul eta blues kontzertua, Espoloian.

Abuztuak 28-30
Kofraixak Osintxu auzoan.

Abuztuak 29
San Lorentzo auzoko jaiak.

Abuztuak 28-Irailak 13
Xabier Diaz de Zerio eskultorearen erakusketa.

Abuztuak 30
San Matei jaiak, Uberan.

Abuztu osoan
15:00-18:00 Astelehenetik egubakoitzera Bibliopiszina zerbitzua, Agorrosinen, irailaren 15era arte.

Abuztu osoan
16:30-18:30 Martitzen eta eguenetan, dinamizazio zerbitzua 8 eta 14 urte arteko gazteendako, Agorrosinen.

oharrak

KINTADA
> 1944an jaiotakoek urtemuga ospatzeko irteera egingo dute

Irailaren 12an egingo dute, 65. urtemuga ospatzeko. Enkarterrietara eta Bizkaiko kostaldera joango dira. Izenematea da irailaren 5a baino lehen Hernandez Bodegoian (943 76 20 43) eta Sanchez ileapaindegian (943 76 23 70). Autobusa abiatuko da 09:00etan, autobus geltokitik.

KINTADA
> 1976an jaioetakoek kinto afaria egingo dute

Irailaren 25ean egingo dute. Izena emateko deitu: 606 64 22 84 (Itxaso) eta 676 87 64 08 (Mertxe).

Bergara eta Antzuolako 18 gazte Muzkin, udalekuetan

11 eta 12 urteko gazteak egon dira Nafarroako herri horretan eta aste osoa eman dute, sei begirale eta Juan Kruz Mendizabal parrokoarekin batera. Donostiako Xirimiri gazte taldearekin egin dute egonaldia eta Mendizabalek aurreratu du, oso ondo pasa dutela. Bestetik, gehitu du lehenengoz antolatu dutela halako udalekua, eta datorren urtean ere antolatzeko asmoa dutela. Izan ere, Aske, gazteendako aisialdi taldea, abiaraztekoak dira berriz, hainbat urteko etenaldia eta gero.

GOIENKARIA

ETXEAK > ZERRENDAK IKUSGAI

San Martingo eta Kasablankako etxeetarako zerrendak ikusgai daude

Etxebideko zerrendak Santa Ana antzokiko beiratean daude ikusgai abuztuaren 10era arte

Etxebiden lau urtez baino gehiagoz izena emanda dutenen artean sei etxe zozketatuko dituzte

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Santa Ana antzokiko beiratean jarri dute ikusgai San Martingo eta Kasablankako babes ofizialeko etxeen zozketetarako zerrenda abuztuaren 10era arte. Etxebidek emandako zerrendari alegazioak egin gura diotenek udal bulegoetatik pasa beharko dute. Zerrenda hori erabiliko dute irailean egingo dituzten zozketatan; hain zuzen ere, San Martin auzoko 11 eta 12 zenbakietako 32 etxeen, eta Kasablanka iparreko 12 etxeen zozketetarako. Bietan lau kupo bereiztuko dituzte: ezinduena (bi etxe), familia ugariena (bi etxe), lau urtez baino gehiagoz Etxebiden izena emanda dutenena (bi etxe) eta orokorra. Guztira 409 izen daude.

Dena den, uztaileko osoko bilkuran onartu zutenaren arabera, San Martingo etxeen zozketan sei etxe zozketatuko dituzte lau urtez baino gehiagoz Etxebiden izena emanda dutenen artean.

Bi zozketetarako deialdiak Gipuzkoako Aldizkarian kaleratu zituzten hilaren 17an.

Oraindik ez dituzte zozketarako egunak zehaztu, baina udal arduradunen asmoa da iraileko lehen hamabostaldian egitea. Bestalde, urtea amaitu aurretik egin gura dituzte Ugarkaldeko eta San Martingo beste etxe batzuen zozketak.

ALEGAZIOAK AURKEZTEKO EPEA

Honez gain, hilaren 17ko Aldizkari Ofizialean kaleratu zituzten San Martin auzoko 9.,10. eta 18. zenbakietako babes ofizialeko etxeetarako, eta San Martin auzoko 20. zenbakiko etxe tasatuetarako baldintzak. Guztira, 56 etxe zozketatuko dituzte.

Gipuzkoako Aldizkarian kaleratutako bi deialdiak jendaurrean jarriko dituzte 30 eguneko epean, eta alegazioak edo iradokizunak egin daitezke abuztuaren 24ra arte. Erreklamazioak egiteko eta informazioa eskatzeko udal bulegoetara joan beharko dute interesatuek.

San Martinen egiten dihardute babes ofizialeko etxeak eta etxe tasatuak. MIREIA BIKUÑA

KIROLA > UDAKO KANPAINA

Abuztuko kirol kanpainako bi txandetan tokia dute oraindik

Mini-tenisa, tenisa, igeriketa eta ur jolasak eskainiko dituzte abuztuan; lehen txanda 4tik 14ra egingo dute eta bigarrena 18tik 28ra

M.B. > OÑATI

Udako kirol kanpainako abuztuko bi txandetan toki librea dute oraindik. Kirol eskaintza txikiagoa da; hain zuzen ere, mini-tenisa, tenisa eta igeriketa eskainiko dituzte: mini-tenisa 10:30ean, tenisa 11:30ean eta igeriketa 10:30ean (3-6 urte artekoendako), 11:30ean (7-12 urte artekoendako) eta 11:30ean, ur jolasak.

ALEGAZIOAK AURKEZTEKO

Abuztuko lehen txanda 4tik 14ra egingo dute eta bigarrena 18tik 28ra. Eskaintza bakoitzean zenbat leku dagoen jakiteko edo izena emateko kiroldegiko bulegoetara joan beharko dute, astelehenetik egubakoitzera 11:00etatik 13:30era, eta martitzenetan eta eguenetan 11:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 19:00etara.

oharrak

DEIALDIA

> Plastiko bilketa egingo dute bihar ilunkeran

Lau lekutan utz daiteke: Zañartu auzoan, Zuazola zubiaren ondoan; Murgia auzoan Asentzio ermitan; Olabarrietako autobus geltokian; eta ETEOko eraikinaren atzealdean. Plastikoak ondo lotuta, 17:00etarako utzi beharko dituzte.

DEIALDIA

> Argia moztuko dute herri osoan abuztuaren 12an

Azpiestazioa aztertzeko lanak egiteko argia kenduko dute herri osoan 15:00etatik 19:00etara arte.

> Rock Privado taldearen kontzertua, eguenean

Andoni Regueiro oñatiarra kide den taldeak emanaldia egingo du eguenean San Anton plazatxoan, 20:00etan.

DEIALDIA

> Danborradako entseguak irailaren 1ean hasiko dituzte

Haur danborradako entseguak irailaren 1ean hasiko dituzte, eta nagusien danborradakoak irailaren 2an, biak ala biak Errekaldeko lokaletan.

Bestalde, nagusien danborradako izenematea zabalik dago etzira arte, kultura etxean edo gaztelekuan.

Aretxabaletako zahar egoitza berriaren ondoan dagoen umeendako jolas parkea txukunduko dute. MIRARI ALTUBE

Umeendako jolas berriak, eserlekuak garbitu eta margotu eta lorategietan landareak jarriko dituzte; horretarako 36.876 euro bideratuko dituzte

ARETXABALETA > HIRIGINTZA

Lausitta kaleko jolas parkea berrituko dute udako oporren ostean

MIRIAN BITERI > ARETXABALETA

Aretxabaletako Lausitta kalean, zaharren egoitza berriaren parean dagoen haurrendako parkea berrituko dutela jakinarazi berri du Aretxabaletako Udalak. Esandako lanok irailean zehar egingo dira eta horretarako 36.876 euroko partida bideratuko du.

Gaur egun esandako parkean dauden umeendako jolasak nahiko zaharkituta daude eta hortaz, horiek kendu eta berriak jartzea erabaki dute. Hain zuzen, lau *sagu* jarriko dituzte. Horiek metalezkoak izango dira eta denborarekin herdoiltzen ez diren kateak edukiko dituzte. Horrez gain, bi eta sei urte bitartekoei zuzendutako egitura dago aurreikusita; txirrista, karrusela eta ohe elastikoak izango ditu horrek. Gainera, haurrek erorialdietan mina hartzea ekiditen duen kautxuzko zorua ez da faltako.

ESERLEKUA ETA LORATEGIAK

Bestalde, Udalak jolas parkeko inguruneak ere txukunduko ditu. Han dauden eserlekuak garbitu eta margotu egingo dituzte eta lorategietan, berriz, landareak ipiniko dituzte.

Azkenaldian lan asko jasan behar izan dituzte Lausittako inguruneko bizilagunek: zaharren egoitza berriaren obrak, errekaren beste aldean egiten ari diren etxeak edo AP-1 autobidearen lanak, besteak beste. Udalak iragarri du "ahalegin berezia" egingo duela ingurua txukuntzeko. Umeen jolas parkearen berritzearekin hasiko dira.

> ARETXABALETA

Gaurko osoko bilkuran Berdintasun plana onartu dute

Gaur, astelehena, osoko bilkura dago deituta Aretxabaletako pleno aretoan. Guztira, zazpi gaietaz jardungo du horretan udalbatzak: Aretxabaletako Udalaren eta Bruesa etxe agentziaren arteko hitzarmenaz; Debagoieneko Industrialdeaz, S.Aren kapitala handitzeaz; kredituen aldaketa batez; Urats-Gain Zaharren Egoitza Fundazioaren estatutuen aldaketaz; 2008ko Inbentarioaren onarpenaz; Berdintasun planaren onarpenaz; eta 2008 urteko kontu orokorraz.

Betiko moduan, galderak eta eskaerak erantzuteko gertu ere egongo dira udalbatzakoak. Osoko bilkura 18:00etan hasiko da.

> ESKORIATZA

Lau langile hartzeko zerrendak argitaratu ditu Udalak

Udalerrian enplegua sustatzeko programaren harira, Eskoriatzako Udalak obra eta instalazio publikoak mantentzeko zerbitzurako lau peoi kontratatuko ditu. Dagoeneko deialdian onartutako eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda argitaratu du. Interesa dutenek udaletxeko iragarki taulan dute hori ikusgai. Erreklamazio epea zabalik dago orain.

Inork ez balu erreklamaziorik aurkeztuko, behin betikotzat joko da zerrenda. Aldiz, norbaitek egingo balu, alkatetzaren ebazpen berri batekin onartu edo atzera botako litzateke, eta ondorioz, behin betiko zerrenda berri bat onartuko du, udaletxeko iragarki taulan argitaratuz.

ESKORIATZA > DIRU LAGUNTZAK

Gizarte zerbitzuetan garatzen duten herriko elkarteendako dirulaguntzak eska daitezke

Abuztuaren 10era arte aurkeztu ahalko dira udaletxeko erregistro orokorrean esandako laguntza jasotzeko eskabideak

M.B. > ESKORIATZA

Eskoriatzako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako aurrekontuak diru laguntzak emateko aurreikusten duen 1.000 euroko partida irabazi-asmorik gabeko eta beren jarduerak gizarte zerbitzuetan jarduten duten erakunde eta elkarteen artean banatzeko deialdia egin du. Horien helburua da parte-hartzea eta boluntario-lana sustatzea, herritarren arteko solidaritatea bultzatzea eta Gizarte Zerbitzuen laguntza behar duen edozein kolektibo laguntzea.

ABUZTUAREN 10ERA ARTE

Deialdiak aurreikusten dituen laguntzak jasotzeko eskabideak oinarri horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta handik hilabete batera aurkeztu behar dira udaletxeko erregistro orokorrean. Kontuan izan behar da, horren harira, iragarkia uztailaren 10ean argitaratu zela.

Dagokion organo ahaldunak hartutako erabakia behar bezala jakinaraziko zaie erakunde eskatzaileei, eskaerak aurkezteko epea amaitu eta hilabete eta erdiko epean. Esandako epe hori pasa eta Udalak eskaera zehatz bati buruz ebazpenik eman ez badu, hura baztertua izan dela ulertuko da. Horren harira, Udalak gogorarazi du eskaria aurkezteak ez duela berez ematen esandako dirulaguntza jasotzeko eskubidea.

ESKORIATZA > IBARRAUNDI

Ibarraundin bi erakusketa egongo dira ikusgai abuztuan

Felix Likinianoren bizitzaren gaineko erakusketa 140 lagunek bisitatu dute

M.B. > ESKORIATZA

Eskoriatzako Ibarraundi museoa zabalik egongo da abuztu guztian zehar. Astelehenetik egubakoitzera bitartean egongo da bisitatzeko aukera, 09:00etatik 14:00etara.

Bi erakusketa egongo dira erakusgai. Beheko solairuan, Felix Likiniano zenaren gaineko erakusketa dago. San Pedro jaien harira antolatu zuen Udalak pertsonaia iraultzaile horren gaineko erakusketa eta Ibarraundiko arduradunek esan digutenez, orain arte harrera ona izaten ari du horrek. Guztira, 140 lagun pasa dira handik.

LORENTXO ALTUBEREN TRESNAK

Horretaz gain, gogorarazi dute lehenengo solairuan Lorentxo Altube arrasatearrak egindako Euskal Herriko musika tresnak bisita daitezkeela. Esandako bi erakusketak udako oporren ostera arte bisitatu ahalko dira.

Hamaiketako berezia egin zuten barikuan udalekuko umeek; goxo-goxoa eta mozorrotuta. L.Z.

ELGETA > HEZKUNTZA

Amaitu dira aurtengo udaleku irekiak

Irailetik aurrera Torrealdeako lokal berrira pasako dute haurreskola zerbitzua; barikuan egin zuten leku aldaketa

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Askotariko pertsonaiekin bete zen barikuan ludoteka berria. Udalekuen azken egunean mozorro festa izan zuten herriko 43 umek, aurtengo kanpainan parte hartu dutenek, hain zuzen ere. Aurreko egunean, eguenean, Karrantzako Karpin abentura parkean izan ziren. Autobusa hartu eta egun pasa egin zuten hiru begiraleekin.

Aurtengoa joan da eta balorazioak egiteko ordua da. Berrikuntza bat baino gehiago izan dituzte udaleku irekiek. Rebeka Ubera Hezkuntza zinegotziaren esanetan, "lehenengo balorazioa positiboa da, baina gurasoek egingo duten balorazioaren zain gaude oraindik, eta hori da garrantzitsuena".

BERRIKUNTZA ASKO

Udalak hiru begirale kontratatu ditu aurten, umeak bi taldetan banatu dituzte adinaren arabera eta gurasoei egitekoak ziren ekintzen behin behineko programazio bat eman zaie. "Udalekuak egiteko erabili dugun espazioa ere asko hobetu dela uste dut", adierazi du Uberak. Gogoratu behar da orain arte Kultura etxeko gela batean egiten zirela udalekuak, eta aurten lehenengo aldiz Torrealdeako ludoteka berrira pasa dituztela uztaileko udalekuak.

HAURRESKOLAREN TRASLADOA

Torrealdeako aretoa prest dago eta haurreskolak bertan zabalduko du 09-10 ikasturtea irailean. Barikuan egin zuten trasladoa brigadako langileek.

Dezente atzeratu dira azkenean lokala egokitzeko lanak. Hasierako asmoa zen urtarrilerako haurreskola bertan egotea, baina ezinezkoa izan da. Irailaren 4an zabalduko ditu ateak, eta momentuz bost ume daude izena emanda. Lau ikasturte eman ditu haurreskolak Herri eskolak lagatako gela batean. Hamar umerendako lekua egon da orain arte. Aurrerantzean 24ra arte hartu ahal izango ditu zerbitzu horrek.

ARAMAIO > ZUIAKO KOADRILA

Martxan jarri dute, zazpigarrenez, argazki lehiaketa

Lanak aurkezteko azken eguna urriaren 21a, asteazkena, izango da; lehiakide bakoitzak, gehienez, hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu

ARANTZAZU EZKIBEL > ARAMAIO

Zuiako Koadrilak VII. Argazki Lehiaketa jarri du martxan. Azkeneko urteetan egin duten moduan, Zuiako Koadrilari begirada bat ematea da lehiaketaren helburua.

LANAK AURKEZTEKO EPEA

Urriaren 21a, asteazkena, izango da argazkiak aurkezteko azken eguna. Lanak astelehenetik ostiralera bitartean, 08:30etik 14:30ak arte aurkeztu ahal izango dira, Zuiako Koadrilaren egoitzan, Murgian. Edozein zalantza izanez gero, deitu 945 43 01 67 zenbakira.

SARIAK

Lehiakide bakoitzak gehienez hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu, betiere originalak.

Epaimahaiak gaia, kalitatea eta erabili den teknika baloratuko ditu, eta hiru sari banatu –400, 300 eta 200 eurokoak–. Saritutako argazkiak Zuiako Koadrilaren esku geratuko dira, ustiatzeko eskubideaz.

Iazko argazki irabazlea. IMANOL TXI

LEINTZ GATZAGA > HERRIKO JAIAK

Irailaren 4tik 8ra ospatuko dituzten Andramaixa jaietako egitaraua gertu dago

Jaietako aurrekontua murriztu egin badute ere, aurreko urteetan egindako ekitaldi gehienak mantentzen saiatu da Kultura Saila

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Irailaren 4tik 8ra bitartean ospatuko dituzte Andramari jaiak Gatzagan. Aurrekontua murriztu beharrean izan dira eta aurten esaterako, ez da egongo bigantxarik. Hala ere, gainerako ekitaldi gehienak egingo dituzte eta nobedadeak ere izango direla aurreratu digu Ainara Zubillaga zinegotziak.

JOLASAK ETA KIROLAK

Bigantxarik ez, baina zezen mekanikoa izango dute plazan irailaren 4an jaiak hasteko. Eta azken urteotan legez rock kontzertuak izango dira gauean.

Irailaren 5ean, zapatua, kenpo erakustaldia eta herri kirolak izango dira eguerdira artean. Umeek puzgarriak izango dituzte arratsaldean eta Zozongo perkusio taldea ilunkaran. Herri afaria ere egingo dute, Trikizio taldea lagun dutela eta bolo txapelketa izango da afalostean.

Irailaren 6a, domeka, kirolari eskainiko diote: mendi bizikleta zeharkaldia goiz partean eta pilota partiduak arratsaldean. Eta astelehenean, irailak 7, umeendako jolasak eta Dorletako Amaren bederatziurrenaren bukaera egingo dituzte. Jaiak martitzenean bukatuko dira eta amabirjinaren eguna izanda, meza nagusia esango dute Dorletan. Ohiturari jarraituz, Otxandiokoak etorriko dira egun horretan.

ANTZUOLA > INGURUMENA

Erreka garbituko dute auzolanean abuztuaren 1ean

Herritar guztiei dei egin diete gazteek, goizez garbiketa egin eta gero bazkaltzeko

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA

Antzuolako gaztetxeko gazteak gertu azaldu dira erreka garbitzeko; eta, garai bateko ohitura berreskuratuz, auzolanean egiteko asmoa dute. Abuztuaren 1ean da hitzordua; goizez lanean jardun ondoren, guztiek batera bazkalduko dute.

Herriko jaien ondoren errekan plastikoak, botilak... daudela ikusi dute gazteek; eta, haien esanetan, ez dira ur korronteak ekarritakoak, jendeak botatakoak baizik. Gainera, aurrez ere erreka ez ei zegoen batere garbi.

Azken bi urteotan gutxienez errekako garbiketarik ez da egin Antzuolan; hortaz, Udaletik ere ondo ikusi dute asmoa.

Egitasmoa gazteek abiarazi duten arren, antzuolar guztiei dei egin nahi diete garbiketan parte hartzeko, denen artean errazagoa izango baita.

Kirola

> FUTBOLA
Ibarreko Ohorezko mailako futbol taldeak gertu daude datorren denboraldirako **> 18-19**

> JUDO
Arrasateko Judo elkarteak 25. urteurrena ospatzeko erakustaldia egin zuen Musakolan **> 20**

> EMILIO MANDALUNIZ
Elkarrizketa azken 25 urteotan Elgetako mendi kriteriumaren antolatzaileari **> 21**

PILOTA > BERGARA

Bergarak du gaur egun Euskal Herriko pilota talderik onena

TXAPELDUNAK
Kadete eta seniorretan irabazita menderatu zuten Legutio

HERRIAREN BABESA
Hainbat bergarar joan ziren Zornotzara pilotariak babestera

OSPAKIZUNAK
Bergarako herriak herriko plazan egin zien harrera txapeldunei

HARRERA Aurreikusita egon ez arren, herritarrek harrera egin zieten txapeldunei; hilabete eskas baten birritan igo dira udaletxeko balkoira. JOSETXO ARANTZABAL

JOKIN BEREZIARTUA > BERGARA

Bergarak du gaur egun Euskal Herriko pilota talderik onena. Hala erakutsi zuen zapatuan Zornotzako Amorebieta V.a pilotalekuan Legutioren aurka jokatutako finalean, Euskal Herriko herri arteko pilota txapelketa irabazita (2-1). Finala ez zen erraza izan, hala ere, aurreikuspenak bete egin ziren hein handi batean: gazte mailan galdu egin zuten eta kadete eta seniorretan irabazi.

Finalean jokatzen lehenak gazte mailakoak izan ziren. Aritz Rezusta eta Gorka Irizarrek ezin izan zuten ezustekoa eman Urko Lekue eta Andoni Mendenuetaren aurka (22-12). Reyes Azkoitiari ez zaio finalera partidu bat galduko dutela jakinda joatea, baina adierazi zuenez, "aurreikuspenen barruan sartzen zen". Izan ere, gazte mailako Legutioko bikotea oso indartsua da.

Kadete mailan Igor Igartua –Mikel Gallastegi Ingalaterran dago– eta Beñat Rezustak 22-17 irabazi zuten. Kadete mailan hasiera makala egin zuten Igor Igartua eta Beñat Rezustak, baina partidu aurrera zihoan heinean, lortu zuten Ibai Fernandez de Larrinoa eta Adrian Obregon mendean hartzea. Azkoitiak adierazi zuenez, "partiduak ez dira 22ra heltzen direnera arte amaitzen, bukaerara arte borrokatu behar dira". Obregonen nagusitasuna ikusita, aurrelariak jokoz kanpo uzten saiatu ziren pilotak etengabe legutiarren atzelariari bideratuz. Horrela lortu zuten partidu erabakigarriari buelta eman eta finala berdintzea. Bestalde, Azkoitiak legutiarren aurrelariaren jarrera kritikatu zuen, hainbat jokalditan ez zuelako kirol legez jokatu, haren ustez.

MUGURUZATARRAK, HUTSIK EZ

Seniorretan erabaki zen finala. Ander eta Eneko Muguruzak ez zuten hutsik egin eta euren mailarik onena erakutsi ez arren, gailendu egin ziren Egoi Aspiazu eta Iker Geretaren aurrean. Izan ere, Azkoitiak aditzera eman zuenez, "Ander Muguruzak ez du egun onena izan, eta normalean baino pilota gehiago galdu ditu". Era berean, baina, "egoera estuetan oso ondo erantzun du" adierazi zuen mahoneroen entrenatzaileak. Eneko Muguruza izan zen partiduko onena. Gogor hasi zuten partidua –6-0 aurreratu ziren–, baina legutiarrek pilota aldatu zutenean parekatu egin zen norgehiagoka. Muguruzatarrek, baina, ez zuten aurkaria hiru tanto baino gutxiagora hurbiltzen utzi. 22-15, eta Bergara Euskal Herriko herri arteko txapelduna.

Eneko Muguruza izan zen finaleko senior mailako jokalari onena. J.A.

'BERGARA ETA GIPUZKOA OSOARI'

Reyes Azkoitiak ezin zuen poza disimulatu: "Garaipena Bergarari eta Gipuzkoa osoari eskaini gura diogu". Urte borobila egin dute pilotari mahoneroek. Merezitako ospakizunak egun osoan zehar luzatu ziren; oraingoan ere harrera ekitaldia egin zieten herriko plazan. Zorionak!

FUTBOLA > OHOREZKO MAILA

Datorren denboraldirako gertu daude Mondra, Aloña eta Bergara

Ibarreko ohorezko mailan arituko diren hiru taldeek aurkeztu dituzte euren jokalariak

Hiru taldeek maila mantentzeko beharrezkoak diren 40 puntuak lortzea dute lehen helburu; hortik aurrera ikusiko da

JOKIN BEREZIARTUA > BERGARA

UDAk Hirugarren mailarako jauzia egin arren, aurten ere Debagoienak hiru talde izango ditu ohorezko mailan, orain arte Preferente moduan ezagutzen zen kategorian, hain zuzen. Abuztuko oporraldiaren aurretik uztaileko azken bi asteetan entrenamendu saioak egin dituzte.

Aipatu entrenamenduek aurpegi berriak ezagutu eta 2009-2010 denboraldira begira talde bakoitzaren helburuak jokalariei jakinarazteko erabiltzen dira. Eta, noski, aurre denboraldia behar baino gogorragoa egin ez dadin jokalariei oporraldian egiteko ariketa fisikoen egitaraua ere helarazten zaie. Helburua argi dago: irailaren 12 eta 13ko aste bukaeran hasten den ligara ahalik eta hobeen heltzea.

MAHONEROEN ITZULERA

Bergara itzuli da, gutxienez, zegokion lekura. Iaz denboraldi borobila egin zuten mahoneroek. Hala, Manu Diaz entrenatzaileak jakinarazi duenez, "iaz bi urteko lanaren fruitua jaso genuen, dena ondo irten zitzaigun". Ez zaio arrazoirik falta. Izan ere Bergarak, ohorezko mailarako igoera

Mondrak joan den uztailaren 22an egin zuen talde guztien aurkezpena; ohorezko mailako taldea

Aloñak iazko denboraldia errepikatzea espero du. Irudian, uztailaren 22an egin zuten entrenam

Ohorezko mailara igo berri den Bergarak sufritu barik maila mantentzea espero du. Argazkian ,

Andoni Azkargorta > Mondrako entrenatzailea

"Iazko amaierako sendotasuna mantendu behar dugu atzealdean"

Zein talde da, zure ustez, faborito?

Hirugarren mailatik jaitsi diren Zarautz eta Ordizia, eta iaz bigarren geratu zen Hernani nabarmenduko nituzke. Gainera, Pasajesek asko indartu du taldea.

Eta Mondra, ondo indartu al da?

Bai. Aurten postu espezifikoetarako jokalariak ekarri ditugu; hegaletarako eta piboterako, batez ere.

Zertan hobetu beharko du taldeak?

Ia dena dugu hobetzeke. Hala ere, iaz urte amaieran erakutsi genuen atzealdeko sendotasuna mantendu beharra daukagu. Izan ere, erdialdetik aurrera oso jokalari onak ditugu.

Non egongo da taldearen indarra?

Datorren denboraldian atzean sendo ibili beharko gara.

Nola ibiliko da UDA?

Atzean iaz bezain sendo ibiltzen badira urte polita egingo dute; hala ere, Hirugarren maila oso gogorra da.



GOIENKARIA

Josu Zubia > Aloñako entrenatzailea

"Joan direnen ezaugarriak dituzte etorri direnak"

Zein talde da faborito?

Pasajes izan da gehien indartu den taldea, nire ustez. Iazko taldea mantendu du eta oso jokalari onak ekarri ditu. Lehen postuetan ibiliko dira.

Nola indartu da Aloña?

Taldea mantendu dugu, iazko antzeko taldea da. Gainera, joan direnen ezaugarriak dituzte etorri direnak.

Zer du taldeak hobetzeko?

Beti dago zerbait hobetzeko, baina iaz denboraldi borobila egin genuen. Orain bertan sinatuko nuke iazkoa errepikatzea.

Non egongo da Aloñaren indarra?

Talde izaeran. Ez dugu izugarri nabarmentzen den jokalaririk, bloke moduan gara indartsuak.

Nola ikusten duzu UDA?

Hasiera izango da garrantzitsua, konfiantza har dezaten. Talde lehiakorra du, oso ondo indartu da. Ea zortea duten eta mantentzen diren.

GOIENKARIA

Manu Diaz > Bergarako entrenatzailea

"Aurrealdean iaz baino eraginkorragoak izan behar gara"

Zein da Preferenteko zure faboritoa?

Hasteko, Zarautz eta Ordizia, Hirugarren mailatik jaitsi direlako. Horiez gain, Hernani eta Tolosa ere indartsu egongo direla uste dut. Eta azkenik, Mondra eta Aloñak ere lehen postuetan egoteko taldea dute.

Bergara ondo indartu al da?

Apenas egin dugu aldaketarik, %90ean talde berdina mantendu dugu.

Zertan hobetu dezake Bergarak?

Aurrealdean iaz baino aukera gutxiago izango ditugu; hortaz, eraginkorragoak izan beharko gara.

Non egongo da taldearen indarra?

Iaz defentsa sendoa izan zen gure oinarria.

Nola uste duzu arituko dela UDA Hirugarren mailan?

Ondo hasiz gero, ondo ibiliko direla uste dut. Jokalari onak eta esperientzia handikoak dituzte.



GOIENKARIA

ak 2009-10 denboraldiko lehen entrenamendu saioa egin zuen. JOKIN BEREZIARTUA

hendu saioa hasi aurretik. MIREIA BIKUÑA

uztailaren 23an egindako entrenamendu saioa. JOKIN BEREZIARTUA

Mondra

JOKALARIEN ZERRENDA

Atezainak
> Ander Ruiz de Azua
> Mikel Garcia.

Atzelariak
> Julen Losada
> Jon Loiti
> Iker Laspiur
> Kepa Merkader
> Illart Etxebarria
> Jon Zabaleta
> Aitor Hernandez.

Erdilariak
> Ander Bereziartua
> Ekain Garin
> Unai Mutilba
> Enrike Tena
> Oier Arregi
> Arkaitz Garmendia
> Jokin Pavo
> Maikel Hernandez
> Gari Nuñez
> Jon Azpeitia.

Aurrelariak
> Jon Muruamendiaraz
> Xabi Pavon
> Beñat Corcuera
> Jon Ander Ormaetxea
> Julen Heriz

BAJAK
> Julen Aranbarri (ikastera)
> Andoni Amutxastegi (UDAra)
> Iker Cabrera (Antzuolara)
> Iker Arazkonaga (Bergarara) .

ALTAK
> Unai Mutilba (Eibartarrak-etik)
> Jon Azpeitia (Eibartarrak-etik)
> Enrike Tena (UDAtik)
> Gari Nuñez (Anaitasunatik)

AURRE DENBORALDIA
Abuztuak 25: Eibar-Urkoren kontra, Eibarren.
Abuztuak 28: Bergara Hiria, Ermua eta Bergararen kontra, Bergaran.
Irailak 2: Berrizen aurka, Berrizen.
Irailak 6: Arrasate Hiria, Bergara eta Aloñaren kontra, Mojategin.
Irailak 9: Urolaren kontra, Zumarragan.

Aloña

JOKALARIEN ZERRENDA

Atezainak
> Iñigo Idigoras
> Oier Zabaleta
> Mikel Aginagalde

Atzelariak
> Julen Barrena
> Xabi Karpintero
> Endika Ruiz
> Gorka Bernal
> Mikel Sanchez
> Jon Igartua
> Eldin Zivojevic
> Iker Olalde
> Iagoba Martin

Erdilariak
> Iker Aramendi
> Mikel Palacios
> Mikel Ibabe
> Iñigo Zubia
> Unai Arregi
> Aritz Garmendia

Aurrelariak
> Unai Moiua
> Iñigo Arregi
> Jon Astigarraga
> Robert Idigoras
> Josu Juaristi

Zalantzak:
> Axibar Larrea: aurre denboraldia egingo du (jubenila da)
> Xabi Agirre: agian kanpora doa ikastera
> Iker Maiztegi: Beranduago hasiko da, lesionaturik dago

BAJAK
> Xabi Elgarresta (Urolara)
> Ioritz Zufiria (Urolara)
> Aito Lopez (erretiratu egin da)
> Xabi Alberdi (erretiratu egin da)
> Axier Ugarte (Eibar Bra)

ALTAK
> Mikel Ibabe (UDAtik)
> Unai Moiua (Eibartarrak-etik)
> Mikel Aginagalde, Endika Ruiz eta Albero Millas jubeniletik igo dira

AURRE DENBORALDIA
Abuztuak 29: Berrizen aurka, Azkoagainen.
Irailak 2: Urolaren aurka, Zumarragan.
Irailak 6: Arrasate Hiria.

Bergara

JOKALARIEN ZERRENDA

Atezainak
> Jokin Belategi
> (Beste atezain baten zain daude)

Atzelariak
> Josu Agirrezabal
> Jon Garitano
> Aitor Elorriaga
> Mikel Oregi
> Andoni Nafarrate
> Iker Arazkonaga
> Markel Lazpiur
> Jon Urteaga

Erdilariak
> Jon Alzola
> Mikel Otero
> Markel Ilzarbe
> Julen Iñurrieta
> Unai Agirre
> Oier Loiola
> Eloi Crespo
> Manolo Ortiz
> Jokin Balzategi
> Peio Barrizbeitia

Aurrelariak
> Martin Ibañez
> Imanol Cabanillas
> Beñat Catalan
> Iñaki Mujika

BAJAK
> Ion Soto (atezaina, Eibar Bra doa)
> Gorka Martinez (futbola utzi du)

ALTAK
> Iker Arazkonaga (Mondratik)
> Peio Berrizbeitia (Eibarreko jubenilaren taldetik)
> Markel Ilzarbe (jubenila)
> Aitor Elorriaga (jubenila)

AURRE DENBORALDIA
Uztailak 29: Eibar Bren kontra.
Abuztuak 27, 28 eta 29: Bergara Hiria, Mondra eta Ermuaren kontra, Agorrosinen.
Irailak 2: Elboibarren aurka.
Irailak 6: Arrasate Hiria, Mondra eta Aloñaren kontra, Arrasaten.

lortzeaz gain, lehen erregionaleko talderik onena izatea lortu zuen Oiartzunen aurkako finalean 4-3 gailendu ostean. Diazendako, bestalde, "lorpen handiena da ia talde osoak jarraitzea eta taldea bergararrez osatuta egotea".

Datorren denboraldira begira, mahoneroen entrenatzaileak adierazi du helburua dela "sufritu barik maila mantentzea".

MONDRA, 'PARTIDUZ PARTIDU'

Zuzendaritza aldaketarekin dator aurten Mondra. Aurreko zuzendaritza taldetik Patxi de Andresek bakarrik jarraituko du, klubeko presidente moduan. Azken denboraldia ez zen batere erraza izan zerrajeroendako; eta aurreko zuzendaritza taldearen erreleboa ez zen azken unera arte ziurtatu.

Lehen taldearen gidaritzan, baina, ez da aldaketarik izango: Andoni Azkargortak segituko du entrenatzaile lanetan. Taldea iazko denboraldiko akatsak ez errepikatzen saiatuko da. Horretarako postu espezifikoetarako jokalariak ekarri ditu Azkargortak. Izan ere, uste du iaz jokalari askok euren ohiko postuetatik kanpo jokatzeak modu negatiboan eragin ziola taldeari. Emaitzak, behintzat, ez ziren batere onak izan. Pasa den denboraldia txarra izan zen talde zuri morearendako, horretan ez dago zalantzarik. Izan ere, Azkargortak jakinarazi duenez, "azken bi jardunaldietara arte ez genuen maila mantentzea lortu". Denboraldi hasieran helburuak oso bestelakoak ziren –lehen postuetan egotea espero zuen Mondrak–, eta astindu gogorra izan zen taldearendako jaitsiera postuetatik gertu geratzea. Horregatik, Azkargortak dioenez, "hurrengo denboraldian partiduz partidu joango gara, hasierako helburua iazkoa baino umilagoa eta lasaiagoa izango da".

ALOÑA, EGUNEROKO LANA OINARRI

Txalotzeko moduko denboraldia egin zuen iaz Aloñak. Azkoagain gotorleku egin zuten, kanpoko taldeendako futbol zelai zaila egin zuten oñatiarrek. Oñatiarrek azken jardunaldietan bigarren postuan sartzeko aukerekin amaitu zuten denboraldia, eta Josu Zubia entrenatzailea oso pozik dago iaz egindako lanarekin: "Oso urte ona egin genuen. Jokalari kopuruari dagokionez, aurten baino talde motzagoa izan genuen, baina jokalariak asko inplikatu ziren eguneroko lanean".

Egindako lan onak emaitzetan islatu ziren iaz, Zubiak dioenez, "eguneroko lan onak emaitza onak bermatzen ez dituen arren".

Datorren denboraldirako taldeak ez du helburu zehatzik finkatu. Zubiak adierazi duenez, "egia da lehendabizi maila mantendu behar dugula eta beharrezko 40 puntuak lortu, baina ez dugu arreta emaitzetan larregi jarriko, eguneroko lanean baizik". Oñatiarren lehen taldeak, Zubiak aditzera eman duenez, helburu ezberdinak izango ditu: "lehendabizi, aurre denboraldian, jokalari berrien integrazioa eta kontzeptu taktikoak ondo barneratzea garrantzitsua izango da". Hala ere, apenas aldatu da taldea eta horrek, Zubiaren hitzetan, asko errazten du lana. Horretaz gain, denboraldiko lehen jardunaldira fisikoki ondo ailegatzea ezinbestekoa da oñatiarren entrenatzailearendako, dioenez, "nahiz eta oraindik ez garen %100ean helduko".

Denboraldian zehar, bestalde, eguneroko lanean eta asteko partiduan zentratuko da Aloña. Amaitzeko, Zubiak jakinarazi du "garrantzitsuena jokalariak iazko ilusio eta umiltasunez jokatu eta entrenatzea" dela. Ondoren, iritsiko dira emaitzak.

Irailaren 12 eta 13ko aste bukaeran hasiko da denboraldia ohorezko mailan; egutegia ez dago oraindik zehaztuta. Hiru taldeak abuztuaren bigarren astetik aurrera hasiko dira aurre denboraldia prestatzen.

MENDIKO LASTERKETAK > EUROPAKO SKYRUNNERS TXAPELKETA

Oihana Kortazar: "Jaitsieretan hobetzeko motibatuta itzuli naiz"

Elgetakoa pozik itzuli da Italian egin duten Europako Skyrunners txapelketatik

Espainiako Kopa du helburu nagusi, eta abuztuaren 23an du hurrengo lasterketa

XABIER URTZELAI > BERGARA

Europako txapelketatik gustura itzuli da Oihana Kortazar, eta abuztuaren 23an (Ourense) eta irailaren 27an (Sabiñanigo) izango dituen Espainiako Kopako hitzorduetarako motibatuta. Sailkapenarekin itsutu barik abiatu zen Elgetakoa Dolomitetara, eta hilaren 17an, egubakoitza, egindako kilometro bertikalean selekziokako sailkapenean laugarrena izan zen: "Proba gogorra izan zen, bi kilometro pasatxotan mila metro igo behar izan genituelako, baina oso pozik geratu nintzen egindako lasterketarekin".

Oihana Kortazar Canazei-n (Trento, Italia) egindako erretratuan, Europako Txapelketan parte hartzeko gertu. GOIENKARIA

DOMEKAKOAN EZ HORREN ONDO

Lehenengo lasterketan egindako lan onak motibatuta, gogotsu ekin zion domekan, hilak 18, egin zuten Skyrace mendi lasterketari: "Baina hor sufritu egin nuen, jaitsieran batez ere. Ibilbidea aldatu egin behar izan zuten, Piz Boe mendiaren tontorrean 40 zentimetroko elur geruza zegoelako, eta zero azpitik lau graduko temperatura. Hala, goranzko bidea ondo egin nuen, baina jaitsieran izugarri sufritu nuen. Egia da elurretan ibiltzeko ez genituela zapatila aproposenak eraman, baina harrian sufritu nuen gehiago, zelako jaitsiera! Euskal Herrian ez ditugu horrelako aldapa beherak!". Elgetakoak hirutan bihurritu zuen ezker orkatila, eta erritmoa jaistea erabaki zuen: "atzetik zetozenei traba egiteraino, pentsa. Ez nuen min hartu nahi, Espainiako Kopa dudalako buruan. Baina, horren gaizki jaisteak amorrua eman zidan. Dena dela, badakit jaitsiera horiek espresuki entrenatu behar ditudala, gainontzeko taldekideek ere gauza bera esan didate, nire lehenengo urtea dela eta hasieran eurak ere baldarrago ibiltzen zirela".

JUDOA > ARRASATEKO TALDEAK 25 URTE

Urteurren arrakastatsua ospatu zuen Judo Taldeak

Defentsa pertsonal ikastaroaren ostean, hainbat ikasle omendu zituzten egindako lanarengatik

N.M. > ARRASATE

25 urte bete ditu aurten Arrasateko Judo elkarteak. Hori ospatzeko, zapatu goizean zehar lagun mordo bat bildu ziren Mojategi kiroldegian.

10:00etatik aurrera defentsa pertsonalaren oinarrizko teknikak irakatsi zituzten Julio Gallego eta Rafa Carriet irakasleek. Oso pozik daude hauek jendearen erantzunarekin, "Zoragarria izan da goiza. Oporretan egonda ez genuen hainbeste jende espero". Borroka-arteen oinarria defentsa pertsonala dela azaldu zieten ikasleei, eta horrelako kirolek errespetua, laguntasuna eta talde lana sustatzen dutela.

Ikastaroaren ostean, hainbat ikasle omendu zituzten: Manu Montiano, Idoia Arias, Floren Batxiller, Victor Gonzalez, Aitor Aranbarri, Fernando Zabalo, Joseba Zubiaurre, Xabier Bengoa, Josu Arabaolaza eta Miren Granados. "Dagoeneko 25 urte daramatzate entrenatzen eta horregatik omendu nahi izan ditugu", diote irakasleek.

Duela 20 urte entrenatzen hasi ziren ikasleak omendu zituzten zapatuan. N.M.

> PILOTA

Alberdi-Gurrutxaga eta Etxaniz-Aizpuru finalerako sailkatuak

Egubakoitz arratsaldean jokatu ziren Oñatiko plazako frontoian txapelketaren finalerdiak. Kadete mailan Alberdi eta Gurrutxaga atera ziren garaile eta gazte mailan Etxaniz eta Aizpuru.

Eguaztenean jokatutako finalerdietan Juaristi eta Rezusta kadeteak, eta gazte mailako Otaegi eta Uriona atera ziren garaile. Uztailaren 30ean, 19:00etan jokatuko dute finala; aurrena kadeteak eta ondoren jubenilak.

> FUTBOLA

Bergarako Realeko zale talderako izenematea zabalik

2009/2010 denboraldirako sortu nahi dute taldea, eta kide izan nahi duenak Erreki erretegira joan beharko du 12:00etatik 15:00etara edo 18:00etatik 20:00etara. Bestela, 696 124 076 (Xabi) telefonora dei dezake.

Realeko jarraitzaileen taldea sortzeko lanetan dabiltzanen asmoa da irail amaierarako taldea sortzea. 40 bat laguneko koadrila bildu gura dute Reala animatzeko.

> FUTBOLA

Raquel Modinok Realaren egingo du denboraldi-aurrea

Gaur bertan hasiko du Raquel Modino arrasatearrak denboraldi-aurrea Realarekin. Sokoa Azkarate arrasatearrarekin elkartuko da Zubietan. Irailean esango diote Superliga jokatuko duen taldean geratuko den edo ez.

Raquel Modino 14 urterekin hasi zen futbolean UDAn. Taldea desagertu ondoren, Mondran jokatu zuen. Superliga ez du ezagutzen, baina Eibar taldearekin jokatu zuen Nazional mailan.

> TXIRRINDULARITZA

Bergaratik eta Oñatitik pasako da Donostiako Klasika

Abuzturen 1ean jokatu duten Donostiako Klasika Debagoienetik pasako da; hain zuzen ere, tropela Bergaratik (13:16an) eta Oñatitik (13:40an) pasako da. Oñatitik Udana aldera egingo dute ziklistek. Donostiako klasika 11:15ean hasiko dute. Helmugara 17:10 aldera helduko dira.

Alberto Contador, Alejandro Valverde, Oscar Freire eta Andy eta Fran Schleck egongo dira irteera puntuan, besteak beste.

Emilio Mandaluniz > Elgetako probako antzolatzaile ohia

"Antolakuntzan erreleborik ez badago proba bertan behera geratuko da"

MIREIA BIKUÑA > ELGETA

Emilio Mandaluniz (Abadiño, 1944) Elgetako mendi kriteriumaren antolatzaile izan da azken 25 urteotan. Aurreko domekan omenaldia jaso zuen eta lana uzten duela esan zuen. Etorkizunaz egin dugu berba.

Emilio Mandaluniz bere bulegoan, Lejarretaren, Gorosperen eta Lenizbarrutiaren argazkien ondoan. MIREIA BIKUÑA

Omenaldia egin zizuten Elgetako kriteriuma bukatu ondoren. Ezustean harrapatu zintuen.

Bai, hala da. 25 urte bete ditu Elgetako probak eta urte hauetan guztietan gure babesle izan den Renault etxeari omenaldia egin nahi genion. Baina ezustea eurek eman zidaten niri. Oroigarritxo bat jaso nuen Rebeka Uberaren eskutik eta emazteari lore sorta eman zioten.

Proba antolatzeko lanak utzi dituzu. Behin betiko?

Bai. 65 urte beteko ditut laster eta ordua da. 25 urte egin ditut antolatzaile lanetan eta nekatu egin naiz. Orain, lanerako gertu dauden aurpegi berriak behar ditugu.

Zuk egindako lanarekin jarraituko duenik badago?

Oraingoz ez, eta okerrena da ez dagoela inor lanerako gertu. Duela bi urte deialdia egin genuen eta orduan lagun batzuk animatu ziren, baina ez dakit lan guztia egiteko gertu dagoen pertsonarik egongo den.

Kontua da, Elgetako proba antolatzeko lan asko egin behar dela aurretik, gestio asko egin behar dira-eta. Lan hori egiten bi lagun egon gara. Bestalde, proba egunerako lagun mordoa behar ditugu. Bidegurutzetan, motorretan, irteeran eta helmugan 100etik gora lagun behar ditugu.

Erreleboaren faltan, Elgetako proba bertan behera gera daiteke?

Bai. Nik uste dut ez dela proba gehiago egingo. Lanerako gertu daudenei laguntza emateko gertu nago. Duela 25 urte hutsetik hasi ginen, baina orain egindako lanari jarraipena ematea da. Pena izango litzateke proba bertan behera geratzea, Gipuzkoako txirrindularitzan toki garrantzitsua lortu ondoren.

Zuretzat berezia da Elgetako proba, baina zer dauka txirrindulariendako?

Hasteko, esango dut Elgetako proba ez duela edonork irabazten. Gaur egun afizionatuetan eta profesionaletan diharduten euskal ziklista gehienak egon dira Elgetan, baina gutxi batzuk irabazi dute. Alberto Contador egon zen Elgetan Iberdrola eta Wurth taldeekin, baina ez zuen proba irabazi. Gorlan lehen heldu zen helmugara. Aurtengo irabazle Fabrizio Ferrari maila handiko txirrindularia da eta profesionaletara igotzeko asmotan dabil.

Elgetako proba polita eta gogorra da. 122 kilometro bakarrik ditu, baina aldapa gogorrak ditu. Ziklistek denbora gutxi izaten dute errekuperatzeko. Gainera, azken igoera dena baino luzeagoa egiten zaie. Egia esan, taldeak gustura etortzen dira.

Zeintzuk izan dira urte hauetako gauzarik onenak eta txarrenak?

Lan asko egin dugun arren, gauza onak txarrak baino gehiago izan dira. Lan asko egin ondoren proba bukatzean norberak duen asebetetzea da inportanteena. Noski, urtetik urtera gauzak hobetzen ahalegindu gara.

IRABAZLEAK

"Elgetako proba ez du edonork irabazten; Alberto Contadorrek ez zuen lortu"

IBARREKOAK

"Debagoieneko ziklista taldeek lan ona egiten dute, batez ere, harrobiarekin"

DOPIN KONTROLAK

"Iruzurgileak ez daude bakarrik ziklismoan, beste kirol batzuetan ere badaude"

Ezusteak ere izan ditugu, baina kontu larririk ez. Gogoan daukat Joseba Belokirekin izandako pasarte bat. Elgetako proba uztailean egin dugu beti –batzuetan zapatuetan eta beste batzuetan arratsaldetan –, eta askotan bero sargoria egin du. Urte baten, proba bukatuta, Joseba Belokik lipotimia bat izan zuen. Ziplo erori zen lurrera. Oraindik gogoratzen du pasarte hura.

Nola ikusten duzu txirrindularitzaren etorkizuna Debagoienean?

Zaletasuna dagoela ez dago dudarik, bai ziklisten aldetik eta baita errepidetan animuak ematen egoten diren lagunen aldetik. Baina lan asko egin behar dugu oraindik; dena den, Debagoieneko ziklista taldeek lan ona egiten dute, batez ere harrobiarekin.

Asko aldatu da txirrindularitza zu hasi zinenetik?

Bai, asko. Hasierako urteetan kirola zen, baina orain zerbait gehiago da. Ez da futbolaren mailara heldu, baina antzerakoa da.

Bestalde, dopin kontuek kalte handia egin diote ziklismoari. Ados nago iruzur egiten dutenak zigortzen dituztenean, baina badirudi ziklismoan daudela bakarrik iruzurgileak. Dena den, ikuskizuna da garrantzitsuena eta Tourrean ikusi dugu.

Ziklismoa alde batera utzita, aspertu egingo zara etxean?

Bai zera! Lehen gutxi egoten nintzen etxean eta hemendik aurrera berdin jarraitu nahiko nuke. Emaztearekin pasako dut denbora gehiago, eta olio-pintura egiten jarraituko dut. Hurrengo astean oporretara goaz.

Ruth Gutsens > Esnearen Ligako kidea

"Garrantzitsua da jaioberritan hastea bularra ematen"

Ruth Gutsens durangarra bere herriko Plateruena kafe antzokiaren ondoan. USOA AGIRRE

OIHANA ELORTZA > ARRASATE

Esnearen Liga 1956an sortu zuten AEBetan. EAEn duela 20 urte eratu zuten eta emakume boluntarioek osatzen dute. Umeari bularra ematen lagundu eta hitzaldiak ematen dituzte.

Zergatik da hain ona amaren esnea umearendako?

Ugaztunaren esnea da espezifikoa, norberarena da onena bere ezpeziarendako. Farmazian saltzen duten esnea maternizatua da, baina behiaren esnea da azken finean. Horrek arazoak ekar ditzake alergiekin, adibidez. Bestalde, emakumearen esnea bizirik dago, leukozitoak eta agente inmunologikoak ditu, eta hori ez dute besteek.

Noiz hasi behar da umeari bularra ematen?

Jaioberriaren lehenengo orduak garrantzitsuak dira. Beti ez da posible, baina horrek ez du esan gura umeak ez duela bularra hartuko.

Zein posturatan eman behar da bularra? Zein da egokiena?

Garrantzitsua da titiburuan zauririk ez izateko, ahoa nahiko zabalik izan behar du, areola hartu behar du-eta. Horretarako, errazena da umea estu-estu hartzea, sudurra tititik ahalik eta gertuen ipintzea. Hori jaioberriak direnean, handitzen doazen neurrian edozein posturak balio du bularra emateko. Bikiak izanez gero, berriz, irudimen handiagoa erabili behar da.

Posible da amak esnerik ez izatea?

Oso arraroa da. Gaur egun entzuten ditugun beste kasu duela 20 mende gertatuko balira, gizakia desagertuta egongo zen honezkero.

Nik ez dut sinisten ama batek esnerik ez duenik. Uste dut bularra emateko antolakuntzak, egunerokotasunak, baldintzatzen dituela ama asko: erlojuari begira bizi gara, lanak presionatu egiten gaitu, gauean umeak ondo lo egitea gura dugu... Esnea eskaeraren arabera sortzen da.

Zein da amek bularra ematerakoan egiten duten akatsik ohikoena?

Akats larriena da mina sentitu arren, bularra ematea umeari. Erabaki horrek ondorio larriagoak izan ditzake, eta hori gertatu aurretik hobe da neurriak hartzea.

Umeak bularra hartzen duenean titia oso gorrituta edo zurituta gelditzen bada, hori ez da normala. Mina sentitzen badugu, hobea da zurrupaketa etetea behatzekin eta berriro saiatzea. Horrelakoetan, umea titian jartzeko momentu onena da bera titibila dabilenean.

Nola zaindu titiburuak?

Umeak titia hartu eta gero, erroetan esne tanta batzuk uztea ona da, lehortu arte. Krema batzuk ere badaude, titi-buruak zaintzeko. Hala ere, arazo gehienak bularra postura txarrean ematearren sortzen dira eta horrelakoetan komeni da matronarengana joatea eta galdetzea ea euren postura egokia den edo ez. Guregana ere etor daitezke.

"Nik ez dut sinisten ama batek esnerik ez duenik, ama asko egunerokoak baldintzatzen ditu"

"Mastitisa sortu baino lehen, ona da aza-hostoa garbitu eta hotza, jartzea bularrean"

Zer da mastitisa? Zer sortzen du eta zer egin?

Oraindik ez dago frogatuta zerk sortzen duen mastitisa. Hala ere, bularrean zerbait sentituz gero, ukitzean zerbait arraroa sumatuz gero, edo ezohiko kolorea ikusiz gero, komeni da begiratzea. Esnea atzetik dator, ez dago titi-buruan, eta garrantzitsua da bularren atzealdea ere begiratzea tarteka.

Bularretako estua erabiltzeagatik, pisu handiko poltsa bat edo antzerako egoera bat izaten da sarritan esnea zapaltzen duena. Esne geldia ateratzea komeni da eta horretarako, garrantzitsua da zerbait sentitu eta 24 ordu baino lehen, beroa jartzea kaltetutako gunean, gero umea titian, eta gero hotza. Aza-hostoak garbitu eta hotzgailuan sartu eta behin hotzitu eta gero mina sentitzen den gunean jartzea ona da galdutako esne hori ateratzeko. Drenajeak ere egin behar dira, hala ere. Amak sukarra badu eta okerrera egiten badu, komeni da medikuarengana joatea.

Nola gorde esnea?

Amak berak ateratzea da onena, eta gero pote txikietan gordetzea, izozteko. Gutxi gorabehera 60 zentilitroko ontzitxoetan. Izoztutako esnea ez da mikrouhinean berotu behar, esnea epela hartu behar dute umeek, eta nahikoa da ur berotan pixka bat epeltzea.

Asko zaindu behar du amak bere elikadura bularra ematen ari den sasoian?

Gure herrian ondo jaten dugu, eta ez da derrigorrezkoa. Edozein zalantza izanez gero, jarri harremanetan gurekin: *www.laligadelaleche.eu*.

aholkuen txokoa

Beroari aurre egiteko aholkuak

EGUZKIA

> Ume txikiak eguzkitik urruti

Sei hilabete egin arte, ez du eguzkia hartu behar, sekula, zuzenean. Eguzkitan baldin badago, hobe da gerizpean egotea. Handiagoa denean, eguzkiaren espozizioa graduala izan behar, baina beti neurriak hartuta.

> Eguzkia ona da, neurrian

Eguzkia hartzea ona da denondako, baina azalak memoria dauka eta hasierako kalteak luzarora nabariak dira. Kontuz eguerdiko eguzkiarekin.

BABESAK

> Txanoak eta nikiak

Komeni da ume txikiak babestekotan ondo babestea, eta eguzkia hartzean, gorputz guztian hartzea. Begiak ere babestu.

> Kremaren faktorea da indarra

Larruazala babesten dute. Azalari kalte egiten dioten izpi ultrabioletak geratzen dituzte kremek. Krema ondo eman behar da, eta sarritan: izerditu ostean, uretan sartu ostean, arratsaldean behin baino gehiagotan... eman behar da krema.

ARROPA

> Sintetikoak ez

Hobe da arropa argiak janztea, arropa ilunak baino. Bestalde, ez jantzi arropa sintetikoa, linuzkoa edo algodoizkoa baizik, eta arina izan dadila.

HONDARTZARAKO ORDUAK

> Ordu egokietan hondartzara

12:00etatik aurrerako orduak gogorragoak eta kaltegarriagoak dira 10:00etatik 12:00etara baino. Arratsaldean joanez gero, osasunarendako hobea da 17:00etatik aurrera joatea.

PIXAOHIALAK

> Sarri aldatu

Pixak amoniakoa du eta izerdiarekin batera, dermatitisa sor dezake. Dermatitis horrek okerrera egin dezake eta komeni da gogoratzea pixaohiala aldatzeaz umeari.

URA

> Hidratazioa

Ura edatea garrantzitsua da. Azala ere hidratatu egin behar da eta horretarako ere komeni da ur asko edatea, ume, gazte zein helduak.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**
guraso.com

> PIKULITXA ROOTS
Gorlako kantinan urtero egiten duten reggae jaialdian izan ginen zapatu gauean **> 24**

> BALKAN BEAT BOX
Udazabal programaren barruan, Balkanetako doinuak, reggaea eta hip-hopa Monterronen **> 24**

> MATERIAL RECHAZADO
Arrasateko punk-rock taldeak diskoa kaleratu du eta elkarrizketa egin diegu taldekideei **> 25**

Herrigintzaren erretratua, Serafin Esnaolaren bitartez

Serafin Esnaolaren gaineko liburua egiten dihardu Miguel Angel Elkoroberezibarrek

Azaroaren 13an egingo dute Bergaran liburuaren aurkezpena eta argazki erakusketa

Bergarako San Martzialen, ikastolaren jaian, 1970ean, lau eta bost urteko neska-mutikoekin. JAUJA ARGAZKIDENDA

ENEKO AZKARATE > BERGARA

Serafin Esnaola apaizaren (*Don Serafin*) gaineko liburua prestatzen dihardu Miguel Angel Elkoroberezibarrek (Bergara, 1966). Aurtengo udaren zatirik handiena zeregin horretan joango zaio. Azken txanpan dihardu. Lau bat urte eman ditu dokumentazio lanetan eta testigantzak jasotzen. 70 lagunetik gorakoenak jaso ditu. Batzuk oso ezagunak, herriagintariak-eta, Arzalluz jeltzalea, Setien gotzaina edo Anabitarte sindikalista kasu.

Lan nekagarri bezain erakargarria izan da Elkoroberezibarrendako. Liburuari forma ematea geratzen zaio bakarrik, batutako milaka argazki eta grabazio orduak iragazita.

HERRIGINTZAREN ERRETRATUA

Bergarako Udalaren laguntzarekin, azaroaren 13an Bergaran aurkeztuko dute liburua, *Serafin Esnaola, herrigintzaren erretratua* izenburukoa. Serafin Esnaolaren bizitza errepasatzen du liburuak, Esnaolak berak ateratako argazki piloaz baliatuz. Liburuarekin batera, erakusketa ere irekiko dute azaroaren 13an Bergarako Aroztegi aretoan. 29ra arte egongo da zabalik. Apaizak ateratako argazkien artetik aukeratutakoak erakutsiko dira. Don Serafinen Bergarako garaia jasoko dute: 1964-1992.

ABERTZALE, KIROLZALE...

Baina, zein zen Serafin Esnaola? Honela deskribatzen du Elkoroberezibarrek berak: "Abertzale, kirolzale, argazkizale, zinezale eta euskaltzale amorratua izan zen eta beti giza eskubideen alde borrokatu zuen. Klandestinitateko euskal kleroaren berregituraketan funtsezko papera bete zuen. Berritzailea ere izan zen; esaterako, berak ekarri zituen Euskal Herrira koloretako 16 milimetroko lehenengo film eta proiektoreak". Haren dimentsioa ezagutzeko adibide bat: "Agirre lehendakariak Gernikako arbolaren azpian zin egin zuen bezala, Leizaolak Don Serafinen aterkiaren azpian egin zuen zin" dio Elkoroberezibarrek.

DESTERRATUTA BERGARARA

Serafin Esnaola Errezilen jaio zen 1915eko urriaren 19an. Bi urte geroago Ormaiztegira joan zen bizitzera eta hantxe bizi izan zen, 23 urterekin apaiz egin zen arte. 1939an Bergarako San Pedro elizan egin zen apaiz, justu 25 urte geroago bueltatuko zen eliza berdinean. Eta Trintxerpera apaiz joatea erabaki zuen.

Trintxerpen 25 urte egin zituen eta herrigintzan buru-belarri aritu zen; berari esker sortu ziren, elizakoez gain, hainbat eta hainbat kultura eta kirol talde. Trintxerpen, 1944an berak eraikiko zuen elizaren lehenengo harria jarri zuen, baina gotzainak ez zion laga bertako parroko izaten. Bazekiten bere ibileren berri eta ez zuten gustuko. Ezta alkateak ezta gobernadoreak ere. Trintxerpearrak asaldatu egin ziren eta eliza itxi egin zuen gotzainak. Gotzainaren aginduz, Trintxerpetik 30 kilometro baino gehiagora alde egin behar izan zuen, eta horrela etorri zen Bergarara 1964ko maiatzaren 24an. Bergaran 28 urtez egon zen, 1992ko irailaren 22an erretiratu zen arte. Ordutik hil arte (2002ko azaroaren 3an) Donostian bizi izan zen, Amara auzoan.

Serafin Esnaola. MIKEL LAZPIUR

Bergaran, lan handia egin zuen: kulturan, kirolean, hezkuntzan, euskalgintzan, arlo sozialean... Hari esker edo haren laguntzarekin sortu ziren Pol-Pol mendizale taldeko gaztetxo saila, Komenio kaleko parrokia etxean kokatu zen ikastola eta beste hainbat.

MILAKA ARGAZKI

Serafin Esnaolak, hil aurretik, Elkoroberezibarren esku utzi zituen hark ateratako ia lau mila argazki, gehienak Bergara eta bergararrekin lotura zuzena dutenak. 2008ko otsailean Bergarako Udalari dohaintzan eman zizkion Elkoroberezibarrek, "bertako agiritegian hobeto gordetzearren eta herritar guztien eskura izatearren". Udaleko artxibokoen laguntzarekin antolatuko dute erakusketa. Elkoroberezibar bera, haren belaunaldiko beste hainbat neska-mutiko bergarar bezala, Don Serafinekin hazi eta hezitakoa da: katekesia, Pol-Poleko mendi kanpaldiak, Donostiarako txangoak... Gerora ere harreman handia eduki zuten.

PERTSONAIA ERAKARGARRIA

Apaiz izatearren eta herrigintzan egin zuen lanagatik zen ezaguna Serafin Esnaola Bergaran, baina liburu hau egiteko izan dituen harremanengatik, pertsonaiaren beste dimentsio bat ezagutzeko aukera izan du Elkoroberezibarrek. Horrek egin du pertsonaia are eta interesgarri eta erakargarriagoa. "Serafin Esnaola lider bat izan zen gerra ostean eta klandestinitatean. Diskretua, baina eragin handikoa abertzaletasunaren munduan, gizon argia zen eta harrokeria baztertzen zuen".

Bergarako udalak, 2003ko martxoaren 31n egindako bileran, Herriko Seme izendatu zuen eta kale bati haren izena ipiniko diote.

MUSIKA > PIKULITXA ROOTS JAIALDIA

Kalitatezko musika eta lagunarteko giroa

Barakaldoko Lutxana Krew taldeak reggae eta dub purua egiten du, sinesgarria. IKER BARANDIARAN

Hendaiako Ding Wash taldearen ezaugarriak dira birtuosismoa eta giro hipnotikoak. I.BARANDIARAN

NON: Gorlako kantinan.
EGUNA: Zapatua, uztailak 25.
ZENBAT JENDE: 100 lagunetik gora.
IRAUPENA: Ia gau osoa.

IKER BARANDIARAN > BERGARA

Pikulitxa Roots da Debagoienean reggae musikarekin lotuta egiten den jaialdi bakarra; eta gehiago ere esan dezakegu, reggae taldeak ikusteko hemen egoten den aukera ia bakarra.

Dagoeneko seigarren edizioa bete du eta urtero moduan reggae zaleak eta Gorla moduko inguruneaz gozatu gura duten hainbat lagun batu ditu.

GIRO LASAI ETA PATXADATSUA

Jaialdi horren ezaugarri nagusienetako bat reggae musika da, baina beste bat da han bizi izaten den lagunarteko giro lasai eta patxadatsua. Reggearekin bat doana da, baita ere, han ez dagoela presarik ezta aurreikuspen zehatz batzuk bete beharrik.

Gaueko lehenengo taldea Bergarako Emon izan zen. Triki eta rocketik jauzi txiki bat egin eta reggaea lantzen ere hasi dira aspaldian, jakina, ohi duten moduan euskaraz abestuta.

BENETAKO REGGAEA

Gauerdia pasata, berriz, Barakaldotik etorritako Lutxana krew taldeak hartu zuen Gorlako agertokia (inoiz baino txukunagoa). Izenaren arabera, hip-hop taldea dirudien arren, reggaea da egiten dutena, eta dotorea gainera. Bi saxo, teklatuak, baxua, gitarra, bateria eta hiru neska abeslariren ahots goxo eta indartsuak uztartuta. Eta egiten dutena? Ba, Jamaikan inspiratutako reggae purua eta, tarteka, dub musika ere bai. Musika estilo horrek lantzen duen erritmo patxadatsuari teklatuekin eta aireko instrumentuekin lortutako kolore eta sonoritateak gehitu zizkioten. Maila ona eta ikusleengana heltzeko erraztasuna, samurtasunez, pretentsio barik.

JAZZA ETA GIRO HIPNOTIKOAK

02:00ak izango ziren Hendaiako Ding Wash taldeak lekukoa hartu orduko. Ez daukate reggae musikarien traza handirik, baina estilo hori barrenean daramate beste batzuekin batera; hala erakutsi zuten. Ez zen zapatukoa Gorlara jotzera igo ziren lehenengo aldia, eta horrek bazuen zergaiti bat: taldeak erakutsi duen maila handia, hain zuzen ere.

Izan ere, soinu efektuekin asko jokatzen dute, batzuetan giro hipnotikoak lortuz. Horrez gain, instrumentuak jotzen birtuosoak dira eta jazzetik hurbil egoten dira hainbat piezatan. Baina reggaea ere lantzen dute. Tarteka, gazteleraz abestuta Ke Ruleren pareko kantu itsaskorrak egin zituzten; eta baita frantsesez kantatutako abesti malenkolikoagoak ere. Gauak luze jarraitu zuen, eta Kale Nagusiko Sound Sister disko jartzailearekin egunsentia heldu zen.

MUSIKA > BALKAN BEAT BOX

Gurean ohikoa ez den zuzenekoa

NON: Arrasateko Monterron parkean.
EGUNA: Zapatua, uztailak 25.
ZENBAT JENDE: 200 lagun inguru.
IRAUPENA: Ordu eta erdi inguru.

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Gurean ohikoa ez den emanaldia izan zen zapatu gauean Arrasateko Monterron parkean. Balkanetako doinuak entzuteko aukera izan zen Balkan Beat Box taldearen eskutik. Proposamen ezberdina, Balkanetako berezko doinuei reggae eta hip hop ukituak gehitzen dion taldea da-eta. Elektronikak pisu handia dauka Balkan Beat Box taldearen musikan, eta perkusio aberatsak, bi saxofoiek eta gitarrek ondo baino hobeto jantzi zuten emanaldia. Musika dantzagarria eskaini zuten, oso ondo markatutako erritmoekin. Monterron parkea, baina, ez da leku aproposena dantzarako, eta aurrealdean zeuden ikusleak izan ziren gehienbat mugitu zirenak. Argi utzi zuten esperientzia handiko musikariak direla; perkusionisten erakustaldia nabarmentzekoa izan zen.

Maila handiko musikariek osatzen dute Balkan Beat Box taldea. J.A.

JENDE EDADETUA NAGUSI

Ikuslegoaren artean jende edadetua izan zen nagusi; espero baino gazte gutxiago izan zen. Emanaldiak aurrera egin ahala, jendea hurbiltzen joan zen eta amaierarako 200 bat lagun batu ziren.

JOSETXO ARANTZABAL

Puntako doinuekin berotasuna zabaldu

Errekan Gora jaialdiak bere bigarren edizioa ospatu du aurten. Iazkoa baino txikiagoa, baina arrakastatsua. Herenegun, zapatua, jazza, musika beltza eta elektronika uztartzen dituen puntako taldea izan zen Eskoriatzako plazan. Mikel Azpirozek (argazkian) gidatutako Elkano Browning Cream taldeak maisutasuna erakusi zuen.

GURE TALDEAK

Material Rechazado

Argazkian, ezkerretik eskuinera, Borja, *Arabo*, Aitor, Jon, *Mo* eta Ibai. JOSETXO ARANTZABAL

"Zuzenekoetan oso bortitzak eta nahiko kaotikoak gara"

Material Rechazado arrasatearrek izen bereko lehen diskoa kaleratu dute; Arrasateko Ekaitz, Iluntz, Etxoste eta Dat tabernetan dago salgai

Diskoa Azpeitiko Lobo diskoetxean grabatu zuten eta ahotsak eta nahasketak Asier Salaren laguntzarekin egin dituzte

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Arabo (bateria-jotzailea), Borja (baxu-jotzailea), Jon (gitarra-jotzailea), _Mo_ (gitarra-jotzailea), Ibai (armonika) eta Aitor (ahotsa) dira Material Rechazado taldeko kideak. Lehen diskoa kaleratu dute eta eurekin egin dugu berba.

Taldearen izen bera jarri diozue diskoari. Nolakoa da?

Ez zaigu autokritika egitea gustatzen, baina, zerbait esatekotan, oso ona dela esango genuke. Punk gogorra entzun daiteke, baina tarteka ukitu lasaiak sartu ditugu.

Egia esan, ez da egokiena guk diskoa nolakoa den esatea; entzuten dutenek esango dute. Hori bai, diskoa entzuten ez dutenak isilik gera daitezela.

Baduzue diskoa aurkezteko asmorik?

Orain uda eta oporrak direla-eta, ez dugu kontzertu asko egiteko asmorik; baina irailetik aurrera hasiko gara diskoa aurkezteko zuzenekoak egiten.

Eta nolakoak zarete zuzenekoetan?

Gure kontzertuetara datorren jendeari galdetzea da egokiena, guztiok ikuspuntu ezberdina dugu-eta talde bat oholtza gainean ikusten dugunean.

Baina zerbait esatekotan, nahiko kaotikoak eta oso bortitzak garela esango genuke. Dena den, gure zuzenekoak ikusi egin behar dira, eta guztiak gonbidatu gura ditugu egingo ditugun kontzertuetara.

Nolako doinuak entzungo ditu zuzenekoetara joaten denak edo diskoa erosten duenak?

Gehienbat, punka egiten dugu. Baina abesti batzuetan punk-rockaren eta ska musikaren ukituak nahasten ditugu.

Zeintzuk dira zuen talde erreferenteak?

Gure talde erreferentea gu geu gara. Ez dugu beste taldeen erreferentziarik hartzen musika egiterakoan, baina oso gustuko ditugun taldeak baditugu...

Bestalde, kantuak idazteko orduan gure eguneroko bizitzan gertatzen direnak hartzen ditugu aintzat; besteak beste, munduan dauden gerrate injustuen eta Espainiaren aurkakoak daude.

Noiz sortu zenuten taldea eta zergatik?

2005ean sortu genuen taldea. Hasiera batean, *Arabo*, Borja, Jon eta Aitor geunden taldean. 2008an *Mo* eta Ibai sartu ziren taldean, gitarra eta harmonikarekin.

Taldea sortu genuenean eguneroko bizitza aspergarriari aurre egiteko asmoa genuen, zapaltzen gaituen sistema klasistari kaleko doinuez eta barruan dugun gorrotoaz ahalik eta kalte handien egiteko asmoarekin. Era berean, gustuko dugun musika egiteko aukera genuen.

Punkaren hainbat alde dituzte agerian

Honako hau gaur egungo Arrasateko punk talde txukunenetako bat dela esan dezakegu. Agertokiak zapaldu eta zapaldu, euren tokia aurkitu dutela dirudi. Hala, disko honetan ideia onak eta kantu sinesgarriak aurkitu ditugu.

80ko hamarkadako punka abiapuntu zuten arren, Oi! musika presente dute eta baita gitarra rockeroak ere. Are gehiago, kantu melodikoez gain, amorrua eta txinpartak botatzen dituzten piezak ere badira disko honetan. Jarrai dezatela horrela!

Iker Barandiaran

Talde bakarrean jotzen duzue ala beste talderen batzuetan zabiltzate?

Taldeko kide guztiok daukagu beste talde bat Material Rechazado taldeaz gain. Besteak beste, Lost Souls eta No Hope.

Musika egitea gustuko dugu, eta denbora ateratzen dugu guztia egiteko. Pozik gaude.

Nortzuengana heldu gura duzue zuen musikarekin?

Adin eta sexu guztietako pertsona guztiengana.

Nola ikusten duzue musika alorra Debagoienean?

Egia esan, ibarrean dagoen musika taldeen mugimendua oso ona da. Arrasate, Donostia eta Azpeitia inguruetan talde onak daude. Dena den, ozen esan gura dugu talde gehienak ez gaudela oso baloratuta.

Non eros daiteke diskoa?

Arrasateko Ekaitz, Iluntz, Etxoste eta Dat tabernetan eta Donostiako, Zarauzko eta Azpeitiko hainbat tabernatan.

UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENEKO GOIENKARIA
V. LEHIAKETA

Argazki guztiak fotoblog honetan: *www.goiena.net/blogak/argazkiak*

ZUHAITZA. Urbiako zuhaitzei atera diet, jendea ez delako ohartzen nolako edertasuna duten inguruan! Urbiako fonda ingurutik daude, oso handiak eta berde-berdeak dira, naturaz beteak! Animatzen zaituztet Debagoienean daukagun edertasuna bisitatzera joatera!. /Argazkia: Arantzazu Ampudia Gomez /Oñati

SAN PIETRO. Vatikanoko aberastasunek txundituta laga ninduten. Partekatzea euren oinarrizko agindua izanik, inguruko behartsuekin zelan ez dute zerbait banatzen? /Argazkia: Ainhoa Menor /Bergara



SUGALINDARA BILA. Argazki hau atera genuen udako arratsalde batean. Gu sugalindarak harrapatzen genbiltzan, baina hauxe agertu zitzaigun. /Argazkia: Ion Bernal Etxaniz /Bergara

URKULU. Askotan ez dago urrun joan beharrik altxorrak eta paisaiak aurkitzeko. Esaterako, Urkulu leku ederra da eta etxetik gertu-gertu daukagu. Estima dezagun daukaguna! /Argazkia:Iker Plazaola Acostan /Oñati

Baldintzak:

- Udako argazkiak izan behar dira: aurtengoak edo beste uda batekoak. (Argitaratu gabeak)
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta.
- Bidali ahal izango dira e postaz *argazkiak@goiena.com* helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri.
- Argazkiak jasotzeko azken eguna, 2009ko irailaren 19a.
- Parte-hartzaile bakoitzak bidali ahal izango ditu, gehienez ere, 5 argazki.
- Adierazi beharko dira: egilearen izen-abizenak eta nondarra den, adina eta telefonoa, eta argazkiaren deskribapena (noiz eta non ateratakoa den, zer edo nortzuk agertzen diren, etab.).
- Astero argitaratuko dira *Asteleheneko Goienkaria*-n.
- Urriaren 6ko *Asteleheneko Goienkaria*-n aditzera emango dira irabazleen izenak.

Sariak:

- **1. saria: Olympus E-420 reflex** argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.
- **2. saria:** Cantabriako Treceño herriko Hotel Palacio de Guevara-n Astebukaera bateko egonaldia bi lagunendako. Gosaria eta larunbateko afari berezia barne Arrasate Bidaiak-en eskutik.
- **3. saria:** bi pertsonarendako afari/bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

Babeslea:

kutxa

Laguntzaileak:

Arrasate Bidaiak – Bidaia-agentzia elkartua – marsans

GURE AMETSA JATETXEA

kiñu argazkilariak

OLYMPUS Your Vision, Our Future

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

2. GARAJEAK
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

3. LOKALAK
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

4. LANA
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

5. IRAKASKUNTZA
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

6. MOTORRA
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

7. ANIMALIAK
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

8. DENETARIK
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

9. HARREMANAK
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

10. RELAX

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

943 25 05 05
sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU; GAINERAKOAK 22 EURO ORDAINDU BEHARKO DIRA MODULUKO.
PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N, BIETAN ARGITARATUZ GERO, 30 EURO.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aramaio. Etxebizitza argitsua salgai erdigunean. Bi logela eta bi komun. Nahiko berria. Berogailuarekin. 665 72 28 46.

Arrasate. Etxebizitza salgai Zigarrolan. 65 metro koadro. 4. solairua. Sukaldea, bi logela, egongela, komuna eta bi terraza. Berogailuarekin. Etxea guztiz jantzita uzten da. Telefonoa: 679 29 90 85.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate erdialdean, Juan Carlos Guerra kalean etxebizitza ematen da errentan. Telefonoa: 696 72 27 00.

Arrasate. Estreinatzeko dagoen etxea errentan ematen da. Uribarriko eliza atzean dago. Sukaldea, egongela, bi komun eta hiru logela. Denek kanpora ematen dute. Igogailua eta garajea ere bai. Telefonoak: 685 72 78 23 edo 670 84 52 46.

Arrasate. Erdialdean, Juan Carlos Guerra kalean, lau logelako pisua ematen da errentan ikasleentzat. Prezio negoziagarria. 616 50 67 28 edo 943 79 56 42.

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan ikasleentzat. Sukaldea, lau gela, bi bainugela, igogailua. Erdialdean eta unibertsitatetik 5 minutura. Telefonoa: 686 20 04 72.

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan unibertsitatetik gertu. Hiru logela, egongela eta sukaldea guztiz hornitua. Berogailuarekin. 610 01 31 80 edo 943 03 78 20.

Arrasate. Hilean 620 eurogatik etxebizitza ematen da errentan. Jantzia. Hiru logela. Deitu ezazu telefono honetara: 665 70 75 80.

Arrasate. Logela bateko etxebizitza ematen da errentan erdialdean. Guztiz berritua eta berogailuarekin. Deitu ezazu telefono honetara: 659 83 21 12.

Conil. Apartamentua ematen da errentan. Deitu ezazu telefono hauetara: 615 75 11 47 edo 659 36 88 75.

Donostia. Guztiz jantzitako etxebizitza ematen da errentan alde zaharrean. Ikasleentzat, 2009-2010 ikasturterako. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Berogailuarekin. 626 00 68 37 edo 943 21 97 50.

Oñati. Eraiki berria den duplex atikoa ematen da errentan. 130 metro koadro. Jantzia. Aire girotua. Domotika. Lau logela eta bi bainugela. 610 73 34 88.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate edo Debagoienean, familia serioak etxebizitza behar du errentan. Presazkoa da. 671 35 22 60 edo 657 20 30 71.

Bergara. Pertsona batendako etxebizitza txikia errentan hartuko nuke. 653 38 56 12.

Donostia. Familiako baten ospitaleratzea dela eta, uztailean eta abuztuan etxea hartuko nuke errentan. Rosi. 649 55 48 10.

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. Oso egoera onean dagoen bi gelako etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da, Arrasate erdialdean kokaturik dago. Baldintza ekonomiko onak. 605 76 07 59.

Arrasate. Bi logela ematen dira errentan erdigunean. Telefonoa: 663 65 78 43.

Arrasate. Logela ematen da errentan unibertsitatetik 5 minutura. Erguin aldean. Wi-fia eta berogailua. Pertsona bakarrarekin batera bizi izateko. 667 53 70 12.

Arrasate. Oso egoera onean dagoen bi gelako etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Arrasate erdialdean dago. Baldintza ekonomiko onak. 605 76 07 59.

Arrasate. Oso egoera onean dagoen etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Egongela eta sukalde handiak eta bi bainugela. Eguzkitsua. Wi-fiarekin. Unibertsitatetik gertu. 699 28 99 06.

Bergara. Logela ematen da errentan Bolun, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. 250 euro. 670 85 86 68.

Bergarako erdialdean gela ematen da errentan. 170 euro gehi gastuak. Deitu 15:00etatik 21:00etara. 670 40 74 53 edo 696 02 68 30.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Bergara. 17,5 metro koadroko garaje itxia salgai Arane Erreka kalean (Bolu). Interesatuek deitu ezazue telefono hauetara: 679 31 45 75 edo 943 76 51 29.

3/ LOKALAK

301. SALDU

ARRASATE

Taberna salgai txikiteo zonan.

666 40 65 19

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Antzuola. Emakume nagusia zaintzeko emakume euskalduna behar da, irailetik aurrera. Deitu ezazu telefono honetara: 649 31 42 42.

Arrasate. Etxe-aldaketa garraioa egingo didan norbait behar dut. Deitu ezazu telefono honetara: 676 89 50 13.

402. ESKAERAK

Aretxabaleta edo Arrasaten lan egingo nuke garbitasun lanetan edo nagusiak zaintzen. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. Deitu ezazu telefono honetara: 626 78 22 95.

Arrasate. Emakume euskalduna gertu etxeko lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko. 680 49 11 45.

Arrasate. Emakume euskalduna gertu nagusiak zaindu edo bestelako lanetarako. Deitu ezazu telefono honetara: 659 82 75 18.

Arrasate. Emakumea gertu nagusiak eta umeak zaintzeko. Orduka edo etxean lo egiteko prest. Deitu ezazu telefono honetara: 663 65 78 43.

Arrasate. Neska gertu garbiketak egiteko edo umeak zaintzeko. Deitu ezazu telefono honetara: 678 20 77 01.

Bergara eta Antzuola. Esperientziadun neska lan desberdinak egiteko gertu: garbiketa lanak, zerbitzari lanak, sukaldeko laguntzaile lanak, umeak edo nagusiak zaintzeko eta abar. 943 78 71 89 edo 634 91 81 73.

Bergara-Arrasate. Pertsona nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egingo nituzke. Arduratsua naiz eta pertsona nagusiak zaintzen esperientzia daukat. Deitu ezazu telefono honetara: 639 94 48 65.

Bergara. Emakumea gertu pertsona nagusiak zaintzeko. Erreferentziaduna. Orduka nahiz etxean bertan bizi izaten. Deitu ezazu telefono honetara: 630 88 54 46.

Bergara. Garbiketa lanak eta jende edadetua zaintzeko lanak (etxean zein kanpoan) egiteko gertu egongo nintzateke. Eta baita lursailetan bakarrik zein bikoteka lan egiteko ere. Roy. Deitu ezazu telefono honetara: 697 85 28 84.

Debagoiena. 25 urteko eskarmentudun boliviarra igeltsero lan egiteko gertu. Gilberto. Deitu ezazu telefono honetara: 654 24 13 27.

Debagoiena. Ainhoa Rezola. Euskalduna naiz. Pertsona nagusiak eta umeak zaindu edo garbiketa orokorrak egiteko gertu nago. Esperientzia eta informeak dauzkat. Zerbitzari titulua eta esperientzia. 671 35 22 60.

Debagoiena. Boliviar gaztea gertu obran, pertsona nagusiak zaintzen edo tabernen garbiketan lan egiteko. Paperak dauzkat. Deitu ezazu telefono honetara: 606 78 35 94.

Debagoiena. Emakume gaztea garbiketa lanak orduka edo pertsona nagusiak gauez zaintzeko gertu. Deitu ezazu telefono honetara: 609 23 39 52.

Debagoiena. Emakumea gertu garbiketak egiteko (etxe zein atari) edo nagusiak zaintzeko, orduka edo egun osoz. Deitu ezazu telefono honetara: 628 40 58 27.

Debagoiena. Emakumea gertu etxeko lanak egiteko eta umeak zein nagusiak zaintzeko. Deitu ezazu telefono honetara: 677 81 10 00.

Debagoiena. Emakumea gertu garbiketa lanak egiteko, umeak eta pertsona nagusiak zaintzeko edo supermerkatuetan lan egiteko. Paperak dauzkat. Deitu ezazu telefono honetara: 666 01 13 42.

Debagoiena. Emakumea gertu garbiketak egiteko. 5 euro ordua. Deitu ezazu telefono honetara: 669 53 02 92.

Debagoiena. Emakumea gertu gauez nagusiak zaintzeko. Deitu ezazu telefono honetara: 646 77 85 31.

Debagoiena. Emakumea gertu haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko. Gauez ere bai. Arrasaten, Aretxabaletan nahiz Eskoriatzan. Esperientziaduna. Deitu ezazu telefono honetara: 618 00 08 28.

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak zaintzeko, baita gauez edo ospitalean ere. Deitu ezazu telefono honetara: 943 88 85 14.

Debagoiena. Emakumea gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Deitu ezazu telefono hauetara: 696 57 03 89 edo 627 60 49 99.

Debagoiena. Gizona gertu soldatzaile edo igeltsero lan egiteko. Deitu ezazu telefono honetara: 666 01 13 42.

Debagoiena. Instalazio elektrikoak, telebistako antenak eta beste hainbat zerbitzu eskaintzen dituen elektrizista gaztea lanerako gertu. Zapatu eta domeketan ere lan egiten du. Deitu ezazu telefono hauetara: 680 87 38 66 edo 627 22 29 11.

Debagoiena. Mutil arduratsua gertu tabernari aritzeko, behebarruak garbitzeko, pertsona nagusiak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile jarduteko. Deitu ezazu telefono hauetara: 651 52 57 24 edo 943 53 30 64.

Debagoiena. Mutil arduratsua, esperientziarekin, tabernari aritzeko prest. Deitu ezazu telefono honetara: 634 45 28 77.

Debagoiena. Mutil euskalduna gertu desbrozadore lanak egiteko. Deitu ezazu telefono honetara: 658 73 79 02.

Debagoiena. Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. Deitu ezazu telefono honetara: 696 48 42 50.

Debagoiena. Mutil gaztea lanerako gertu. Makinen mantentzelanetan eta garraioan eskarmentua. Roberto. 638 10 29 63.

Debagoiena. Neska gertu garbiketa lanak egin edo nagusi zein umeak zaintzeko. 648 33 93 68 edo 943 79 76 39.

Debagoiena. Neska gertu umeak zaintzeko edo ostalaritzan lan egiteko. Deitu ezazu telefono honetara: 666 21 82 94.

Debagoiena. Sukalde laguntzaile, nagusiak zaintzen edo garbitasun lanak egingo nituzke. Deitu ezazu telefono honetara: 608 34 36 11.

Delineatzaile, dekoratzaile eta hirugarren ikasturteko arkitektura ikaslea edozein lanerako gertu. Autocad programarekin esperientzia. Deitu ezazu telefono honetara: 676 61 15 47.

Erizain laguntzailea lan bila. Adinekoak edo umeak goizez zein arratsaldez zaintzen lan egingo nuke. Deitu ezazu telefono honetara: 650 58 21 69 edo 943 08 20 79.

Tornularia, konbentzionalekoa, 20 urtetik gorako esperientziarekin. Debagoienean lan egingo nuke. Deitu ezazu telefono honetara: 655 71 47 41.

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

Psikopedagogia ikaslea naiz EHUn eta eskola partikularrak jaso nahi nituzke. 686 20 31 35.

Solfeoa. Solfeoko eskola partikularrak jaso nahiko nituzke, azterketatara libreki aurkeztu ahal izateko prestakuntza jasotzearren. Deitu ezazu telefono honetara: 653 72 43 19.

Zinpeko zaintzaile lanetan dihardu eta neska naiz eta lanpostu horretako oposizioak prestatzen lagunduko didan norbait behar dut. 685 77 66 21.

502. EMAN

Arrasate. Ingeleseko eskola partikularrak ematen ditut. Maila guztiak. Deitu ezazu telefono honetara: 635 73 77 21.

Bergara. Ingeleseko eskola partikularrak ematen ditut, Bolun, datorren ikasturtea prestatzeko. Deitu ezazu telefono honetara: 616 12 56 29.

Bergara. Lehen Hezkuntzako ikasleentzat eskola partikularrak ematen ditut uztailean. Deitu ezazu telefono honetara: 660 15 51 01.

Lehen Hezkuntzako eskola partikularrak ematen ditut. 2. mailako Gizarte Integrazioko ikaslea prest laguntzak emateko. Esperientzia euskarazko indartzeak ematen. Deitu ezazu telefono hauetara: 617 27 27 33 edo 943 53 38 19.

6/ MOTORRA

602. EROSI

ATV bat erosiko nuke. Gutxienez 400 zentimetro kubikokoa, 2 plaza homologaturekin, 4x4, eta abar. Deitu ezazu telefono honetara: 629 42 25 84.

7/ ANIMALIAK

704. BESTELAKOAK

Baserrirako arratoi-txakurkumea hartuko nuke. Deitu ezazu telefono honetara: 655 71 41 24.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Alpine kargadorea salgai. Ondo dago, eta merke-merke. Deitu ezazu telefono honetara: 679 10 95 23.

Burgosen oilagorretarako bi tarjeta saltzen dira 11 lagunendako koto batean. Bi herriz osatua dago eta 3900 ha ditu. Eperra eta erbia ere ehiza daitezke. Deitu ezazu telefono honetara:696 92 18 29.

Donostiako Jazzaldia. Kursaaleko kontzertuetarako 2 abonu. Brad Mehldau, Hank Jones Trio, Joe Lovano, James Taylor. 2. ilaran. Bi abonuak 200 euro (30 euro merkeago). 652 70 77 86.

Egongelako mahaia salgai. Gerezi kolorekoa. Kaxoiekin. 943 79 79 34.

Errepideko bizikleta salgai. Giant ORC 2 sh 105. 56 neurrikoa, 4.000 km ditu. Deitu ezazu telefono honetara: 656 75 35 86.

Errepideko bizikleta salgai. Giant etxekoa, 600 euro. Telefonoa: 656 75 35 86.

Gurpildun aulki motorduna salgai. Erabili gabea. Prezio negoziagarria. 618 62 79 43 edo 943 79 65 72.

Hozkailua. Komertziorako egokia. Kristaldun atearekin. 508 euro. 685 73 93 55.

Karro denda. Brisa modeloa. Egoera nahiko onean eta merke-merke. Krisiari aurre egiteko, hoberena oporretan joateko. 605 73 75 30.

Lursaila Angiozarren. 1.500 metro koadroko lursaila salgai, bi familiako etxea egiteko aukerarekin. 647 51 52 54.

Nokia 6124 telefono berria salgai. Vodafonekoa. 50 euro. 617 13 17 51.

Umeen arropa (3-6 hilabete) eta umeen artikuluak salgai. 943 79 79 34.

Urazpiko arrantzarako tresnak: neoprenoa, berunak, aiztoa, fusila eta abar saltzen dira, merke-merke. 679 10 95 23.

803. EMAN

Umeendako aulki-kapazoa ematen da opari. 605 73 37 39.

806. GALDU

Audifonoa. Uztail erdialdean Bidaurretan, Oñatin, galdu zitzaidan audifonoa. Norbaitek aurkitzen badu mesedez deitu telefono hauetara:. 656 75 42 73 edo 943 71 61 42.

Bizikleta desagertu zaigu, ekainaren 30ean, eguerdian, atarian. Arrasateko Juan Carlos Guerra 5ean. Ikusi baduzu edo zuk badaukazu, deitu, mesedez. 699 78 87 36.

Poltsikoko telefonoa galdu nuen ekainaren 25ean Arrasateko Zaldibar frontoiaren inguruan. Aurkitu baduzu, deitu, mesedez. 646 62 19 51.

Urrezko aliantza galdu dut; "Idoia 16-9-06" dauka idatzita. Aurkitu baduzu, mesedez, deitu. Deitu ezazu telefono hauetara: 615 73 29 44 edo 943 53 28 58.

807. AURKITU

Erlojua aurkitu nuen uztailaren 18an, zapatuan, Gorlako Santutxuko iturri aldamenean. Txiflo bat dauka eta Lotus etxekoa da. 680 33 40 77.

Eskumuturrekoa. Ume baten urrezko eskumuturrekoa aurkitu nuen sanjuanetan, Arrasateko Okoretegi tabernaren terrazan. Galdu baduzu, deitu. 943 79 02 97.

Urrezko katea. Kalebarrenen urrezko katea aurkitu dut. AB 8-5-83/14-9-73 dauka idatzita. Galdu duenak, dei diezadala. 687 83 12 13.

808. BESTELAKOAK

Autorako umeen aulkia beharko nuke. Deitu ezazu telefono honetara: 650 96 23 08.

Berogailu elektriko bat beharko nuke. Deitu ezazu telefono honetara: 650 96 23 08.

9/ HARREMANAK

904. BESTELAKOAK

Donostiatik Soraluzera autoz joateko norbaiten bila nabil. Donostiatik 15:00etan irtenda. Ordaintzeko gertu. 618 21 42 59.

Oñati-Gasteiz. Egunero Gasteizera joaten gara, San Prudentzion elkartuta, autobidez, Lakuara eta Ejiera. Udan 08:00etatik 14:30etara egiten dugu lan eta bestela, 17:00ak arte. Interesatuta egonez gero, deitu. 635 20 33 14.

KOROSTI
INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:
- Matxiategi 82 m². Eguzkitsua.
- Zubiaurre 230 m². Berritua.
- Zubieta 80 m². Berritua. Ganbararekin.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 m². Berritua. Gazteentzat.
- Zubiaurre 67 m². Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60m². Oso ondo
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- San Antonio, 46 m². Berritua.
- Masterreka. 46 m². Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 m². Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m². Oso ondo.
- Azkarruntz 69 m². Prezio ona.
- San Pedro 65 m². Ganbararekin.
- Osintxu 64 m². Berritua. 114.192 €.
- Aranerreka 80 m². Terrazarekin.
- Zubiaurre 58 m². Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 m². Oso ondo.
- Osintxu 62 m². Prezio ona.
- San Lorentzo 68 m2. Berritua.
- Zubiaurre 55 m2. Berritua. 84.162 €.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- **San Lorentzon etxe berriak**

Antzuola:
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 m². Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

Elgeta:
- San Roke 72 m². Berritua.
- San Roke 80 m². 80 m²-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m². Berritua.

Soraluze:
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.

DEBA
GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA
- Artekale, 89 m², ondo.
- Arrizuri, 97 m², garajearekin.
- Matxiategi, 65 m², berritua eta aukera ona.
- Matxiategi, 88 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m², ondo, hortuarekin.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m², berria, garajea aukeran.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Iparragirre, apartamentua, 40 m², berria, garajea eta trastelekua.
- Zubiaurre, 55 m², 84.142 euro. Negoziagarriak.
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Urdangarin pasealekua, 132 m², berritzeko.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Matxiategi, 73 m², berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Simon Arrieta, 80 m², berritua. Oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- Bidekurutzeta, 111 m², oso ondo.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.**

SORALUZE
- Baltegieta, 83 m², berria.
- Sagarerreka, 58 m², aukera ona.

ANTZUOLA
- Eguzki auzoa, 85 m², oso eguzkitsua.
- Antigua 55 m², erdi berritua.

ELGETA
- San Roke, 75 m², ia berria.

sudokua

	3	7		8		4		6
		8		2			3	
9		4			6			
8		6	5	4		2		
7			2					
		2		3		1		
3	7					6		2
2	8							5
			9	7	2			1

bila-bila 7





hitz gezidunak



		* Irudiko txoria / Libreak				Hausnarkari mota / Kemen, adore			Frantziako lurraldea / Auzitara jotzen du		
					Kasa / Begi, hitz elkartzeetan						
Handi samar / ... izan, onuragarri izab			Biluzik utzi / Mami								
								Idi, hitz elkartzeetan / Zezen zikiratua			
Gari irinezko opila / Eguzki											
				Afrikako estatua / 500 eta 1000							
Ederto / Oratzeko aska						Ipar EH-n, inguru / Hidrogenoa					

GOIENKARIA

hieroglifoa

Elurra... ari du.



hizki salda

Jaioberrien 5 gauza.

B	P	I	X	O	I	H	A	L
T	H	Y	E	S	J	B	Z	T
T	B	I	B	E	R	O	I	N
O	P	T	S	H	T	D	O	P
S	E	T	X	A	T	Y	N	L
O	A	U	L	S	E	A	O	K
X	D	A	E	K	C	F	T	P
B	E	T	T	A	X	E	U	U
C	T	X	U	P	E	T	E	A

soluzioak



A	E	T	E	P	U	X	T	C
U	U	E	X	T	A	T	E	B
P	T	F	C	K	E	D	A	X
K	O	A	S	L	U	A	O	
L	N	Y	A	T	X	E	S	
P	O	D	H	T	S	T	P	O
T	O	I	R	E	B	I	B	T
N	I	O	R	E	S	J	B	T

Hieroglifoa: Mara mara.

1	8	3	2	7	9	5	4	6
5	7	9	3	6	4	1	8	2
2	4	6	5	1	8	9	7	3
7	5	1	8	3	6	2	9	4
4	6	8	1	9	2	3	6	7
3	9	2	7	4	5	6	1	8
6	2	4	9	8	1	7	3	5
9	3	5	4	2	7	8	1	9
8	1	7	6	5	3	4	2	6

A	I	A	H	A	M	A	R	O
I	R	I	■	O	D	N	O	■
N	A	D	U	S	■	I	K	E
A	L	I	P	O	T	U	S	■
T	I	■	I	N	E	M	O	K
I	Z	U	L	I	B	■	K	■
Z	U	B	A	K	■			
K	A	E	K	S	A			
O	■	Z	■	E	■			

asteko horoskopoa

ARIES
martxoak 21-apirilak 21

Malgutasunez jokatu beharko duzu diruarekin, egoeren arabera. Batzuetan aurreztaile, besteetan eskuzabal. Maitasunean, egun biziak.

TAURUS
apirilak 22-maiatzak 21

Astroen arabera, lanerako eta ahaleginerako egun onak. Normalean baino biziago igarriko duzu zeure burua. Harremanen arloan izango dituzu zailtasun handienak.

GEMINI
maiatzak 22-ekainak 21

Jarri arreta egitasmo handizaleei eta ekonomikoki hobetzeko aukerei, gutxi barru sekulako indarra hartuko dute eta. Bada ordua zure egoera ekonomikoa hobetzeko.

CANCER
ekainak 22-uztailak 22

Ez dira egun lasaiak izango zuretzat. Ez zaitez geldi geratu, energia soberan izango duzu eta. Kontuz buruko eta belarriko minekin.

LEO
uztailak 23-abuztuak 22

Normalean baino harroago ibiliko zara. Ahalegindu txutxumutxuei arretarik ez jartzen. Azaleratu zure sentimenduak mugarik gabe.

VIRGO
abuztuak 23-irailak 22

Diru kontuetan hobeto ibiliko zara besteen aholkuak jarraituz gero. Baliteke, aukera zabalak eta emankorrak ekarriko dizkizun lan baten inguruko berri onak jasotzea.

LIBRA
irailak 23-urriak 22

Eman atsedena zure giltzurrunei, edan ahal duzun ur guztia eta utzi janari gogorrak eta gatza. Gertaerak ohi baino astiroago joango dira.

SCORPIUS
urriak 23-azaroak 22

Bolada ona diruaren aldetik. Etekinak jasoko dituzu zuk zeuk edo zure bikotekide edo ingurukoengandik. Ahaztezina izango den ohiz kanpoko bolada bizitzeko aukera.

SAGITARIUS
azaroak 23-abenduak 21

Diru sarrera eta galera ugari. Ahalegindu zaitez zerbait gehiago aurrezten garai txarrak datozenerako. Hausnartu eta konpondu familiako arazoak.

CAPRICORNIUS
abenduak 22-urtarrilak 20

Familia barruko harremanetarako eta batez ere maitasun kontuetarako une egokia. Zuretzat oso berezia izango den pertsona ezagutuko duzu.

AQUARIUS
urtarrilak 21-otsailak 20

Ohi baino diru gehiago jasoko duzu agian. Beharbada, hainbeste merezi eta luzaroan itxaron duzun soldata igoerarengatik izango da.

PISCIS
otsailak 21-martxoak 20

Lagunek, ohiko gastuek eta ezusteko ospakizunen batek dirua eskuetatik kenduko dizute. Bizi-bizi ibiliko zara, eta kirolari ekiteko gogoz, igeriketari esaterako.

gazte zerbitzua

PRESTATU ZURE OPORRAK!

> Oporrak. Gazte Bulegoetan aurkituko duzu zure oporraldia prestatzeko guztia: informazio praktikoa, aholkuak, deskontu txartelak, osasun aseguruak, garraioak, alojamendua, eguneko planak egiteko proposamenak...

LANA

> Pintorea eta elektrikaria. Arrasateko Udala. Aldi baterako kontratuak langabetuei zuzenduta. Epea: uztailak 30.

> Lanbide. Debagoiena. Lanbiden bete gabe dauden lanpostuak: sukaldaria, zerbitzaria, hortz klinikako laguntzailea, peoia, historia eta arte irakaslea, natur zientzien eta matematika irakaslea, euskal filologoa.

> Erdi Mailako Teknikariak. Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoak 21 plaza betetzeko lan-poltsa osatzeko hautapen probetarako deialdia. Epea: ekainaren 16a.

> Liburuzainak, liburutegiko teknikariak eta kultura laguntzaileak. Donostiako Kultura. Aldi baterako lan beharrak betetzeko zerrendak osatzeko deialdia. Epea: uztailaren 29a.

BEKAK

> Goi-mailako ikasketak. Eusko Jaurlaritza; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. 2009-2010 ikasturtean unibertsitate-mailako eta goi-mailako beste ikasketa batzuk egiteko izaera orokorreko diru-laguntzak. Epea: urriaren 16a.

LEHIAKETAK

> Graffitiak. Topagunea; Euskara Elkarteen Federazioa. Euskal Herriko V. Graffiti Lehiaketa. *Spraikada*-n 16 urtetik gorako gazteek har dezakete parte, bakarka edo taldeka. Epea: ekainaren 27a.

gazte informazioa

ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

astea GOITBn

Astelehena, 27

> Ibarreko berri guztiak jasoko dute albistegian
14:45

Julen Iriondo kazetariak aurkeztutako albistegia, ibarrean gertatu diren berriak ezagutzera emateko. Eguerdian eta iluntzean.

13:15 Marrazki bizidunak : Cloud Trotters.
13:45 Itsasoari begira.
14:15 Eltze beroa.
14:45 Berriak.
15:15 Mugaz kanpo.
15:45 Elkartasunaren bidean.
16:15 28 klip.
16:45 Berriak.
17:15 Marrazki bizidunak.
17:45 Wazemank
18:15 Musikantoi
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bizidunak.
19:45 Berriak.
20:15 Ikusten
20:45 Golb tb.
21:15 Berriak.
21:45 28 Klip
22:15 Elkartasun bideak.
23:00 Erreportajea.
23:30 Berriak.
00:30 Emisio amaiera.

Martitzena, 28

> 'Ilunpean' saioa Jon Berezibarren eskutik
22:15

Euskal Herriko pertsonaia ezagunak elkarrizketatuko ditu *Ilunpean* Jon Berezibar kazetariak Goienako platoan.

13:15 Marrazki bizidunak: Alex eta Alexis
13:45 Ikusten.
14:15 Eltze beroa.
14:45 Berriak.
15:10 Elkartasun bideak.
15:50 Solaskide.
16:20 Itsasoari begira.
16:45 Berriak.
17:10 Marrazki bizidunak.
17:35 Erreportajea.
18:05 Solaskide.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bizidunak.
19:45 Berriak.
20:15 Solaskide
20:45 Mugaz kanpo.
21:15 Berriak.
21:45 Erreportajea
22:15 Ilunpean.
23:00 Lamien artean.
23:30 Berriak.
00:00 Emisio amaiera.

Eguaztena, 29

> Julen Iriondok egindako erreportaje zabala
22:15

Egunerokotasuna duen gai baten inguruan landutako erreportaje zabala, eguaztenean, eta errepikapenak abuztuan.

13:15 Marrazki bizidunak Cloud Trotters.
13:45 Ur eta lur.
14:15 Ikusmira.
14:45 Berriak.
15:10 Ilunpean.
15:50 Golb tb.
16:20 28 Klip.
16:45 Berriak.
17:15 Marrazki bizidunak.
17:45 Solaskide.
18:15 Ur eta lur.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bizidunak.
19:45 Berriak.
20:15 Ikusmira
20:45 Solaskide.
21:15 Berriak.
21:45 ur eta lur.
22:15 Erreportajea.
23:45 Berriak.
00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 30

> Sukalde kontuak 'Eltze beroa' programan
14:15

Oizmendi telebistak ekoiztutako programa. Sukalde kontuak ekarri dituzte, arratsaldeko lehenengo orduetarako.

13:15 Marrazki bizidunak: Alex eta Alexis
13:45 Solaskide.
14:15 Eltze beroa.
14:45 Berriak.
15:15 Ikusmira.
15:45 Mugaz kanpo.
16:15 28 Klip.
16:45 Berriak.
17:15 Marrazki bizidunak.
18:00 Elkartasun bideak.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bizidunak.
19:45 Berriak.
20:15 Golb tb
20:45 Musikantoi.
21:15 Berriak.
21:45 Ikusmira
22:15 Ikusten.
23:15 Erreportajea.
23:45 Berriak.
00:15 Emisio amaiera.

Egubakoitza, 31

> Marrazki bizidunak, goizeko lehenengo orduan
08:00

Etxeko txikienentzat, goizeko lehenengo orduan marrazki bizidunak. Lehenengo, *Trikitraka trikiton* pailazoak.

08:00 Trikitraka trikiton.
09:00 Marrazki bizidunak.
11:30 28 klip.
12:00 Erloklip
12:30 Ikusmira.
13:00 Erreportajea.
13:45 Solaskide.
14:15 Eltze beroa.
15:30 Zaharrak berri.
15:45 Marrazkiak.
18:15 Trikitraka trikiton.
19:15 Erreportajea.
19:45 Solaskide.
20:15 wasemak.
21:15 Elkartasun bideak.
21:45 Musikantoi.
22:45 Golb tb.
23:15 Ilunpean.
00:00 Itsasora begira.
00:30 Emisio amaiera.

arrasate irratia

FM 107.7

> Arrasate Irratiak oporrak hartuko ditu, eta irailean itzuliko da

Udako oporraldia badatorrela-eta, Arrasate Irratian ere etenaldia egingo dute, abuztuaren 31ra arte. Hori zuzeneko saioari dagokionez; izan ere, 107.7 sintonia ez da isilik geratuko; ohi moduan, kantu esanguratsuak entzuteko aukera izango duzue.

Zapatua
10:00 Asteko gainbegiratua.

Domeka
10:00 Asteko gainbegiratua.

Astelehenetik egubakoitzera
10:00-12:00 Uda giroan.
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan kirolak
Ilunpean (elkarrizketa Euskal Herriko pertsonai ezagun batekin)
Sozioekonomia gaiak, Iñaki Azkoaga komunikazio arduradunarekin
Udal gazte bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Astearen errepasoa (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 *irratia@goiena.com*)
11:55 Arrasate Irratiko albisteak, labur.
12:05 Euskadi irratiko albistegia.
12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak.
14:00 Uda giroan.
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

telealbisteak

TELEBISTA > FUTBOLA

ETBk Txapeldunen Ligako partiduak eskainiko ditu abuztutik aurrera

Kirol ekitaldi nagusienetan egotearen alde egin du EITBko zuzendaritza berriak; guztira 18 partidu emango ditu

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Euskal Telebistak, lehenengo aldiz, UEFA Txapeldunen ligako partiduak eskainiko ditu denboraldi berrian. Abuztutik aurrera izango dira partiduak, guztira 18 partidu. Lehenengo biak abuztuan emango dituzte, atariko fasekoak, hain zuzen; eta, lehen faseko beste sei irailetik abendura bitartean emango dituzte.

SUPERKOPAKO FINALA

Abuztuan, Europako Superkopako finala emango dute. Neurketa hau abuztuaren 28an jokatuko dute Monakon Bartzelonak, Txapeldunen Ligako egungo txapeldunak, eta UEFA Txapelketako txapeldunak, Ukraniako Shakhtar Donetsk taldeak.

ETBk jardunaldiko partidak asteazkenero eskainiko ditu, 20:45ean. Horrez gainera, laburpen saioak ere emango ditu, martitzen eta eguenetan.

20. URTEURRENA

Kirol ekitaldi nagusienetan egotearen alde egin du EITBko zuzendaritza berriak. Bestalde, FORTAren 20. urtemugan, apustu garrantzitsua izan da telebista eta irrati autonomikoen federazioarentzat.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

ERAKUSKETA IRAUNKORRA: 172 modulu interaktibo ezberdin dauzka, bi solairu eta 9 geletan banatuta. Komunikatzeko modu berri bat, esperimentu eta objektuen manipulazioa erabiliz.

PLANETARIUM BERRIA

Kupula osoan proiektatzen diren erresoluzio handiko irudi ikusgarriak.
Gaur
- **Itsua izar begiekin:** Agure eta tirano baten istorio animatua. 10:30, 11:30 (euskaraz)
- **Biziaren jatorria:** Gure unibertsoaren sorrera, eta biziarena lurrean. 13:00 (gaztelaniaz)
- **Kartoizko Suziriaren sekretua:** Haurrei zuzenduta. 12:00 (euskaraz)
- **Eboluzioa:** Izakion historiako gertaera eta unerik garrantzitsuenak.18:00 (euskaraz)
- **Donostiatik zerura begira:** Zuzeneko saioa. 19:00 (gaztelaniaz).

BESTE EKIMENAK

Egunero 20 jarduera baino gehiago antolatzen ditugu, museoko sarreran barne. Segway giza garraiatzailea, fakirraren ohea, BerzikIARTEA tailerra, esperimentuak, elektrizitate ikuskizuna, Planetarium Txikia, etabar…

UDAKO ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera:
10:00etatik 20:00etara.
Larunbat, igande eta jai egunetan: 11:00etatik 20:00etara.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA
Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramon.org

kutxa | www.kutxasocial.net

zorion agurrak

BERGARA
Irene Azkargorta Juaristi
Uztailaren 20an, 9 urte. Zorionak, familia guztiak. Patxo bat!

ESKORIATZA
Uritz Arenaza Pagalday
Uztailaren 20an, 32 urte. Zorionak, tia Uritz! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Muxu handi bat.

ESKORIATZA
Nahia Gomez Arenaza
Uztailaren 21ean, 2 urte. Zorionak, Nahia! Oso ondo pasatu eguna. Muxu handi bat. Enara, tia Bidatz eta tio David.

ESKORIATZA
Iñigo Urrutia Muñoz
Uztailaren 21ean, 33 urte. Zorionak, tio Iñigo! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Muxu handi bat.

ARETXABALETA
Eñaut Betegi Jausoro
Uztailaren 22an, 2 urte. Zorionak, txiki! Ondo-ondo pasatu urtebetetze eguna. Muxu handi bat etxeko guztion partetik.

BERGARA
Erik eta Jone Sanz
Erikek uztailaren 22an, 3 urte betetzen ditu. Jonek uztailaren 8an, 9 urte bete zituen. Zorionak, etxekoen partetik, eta patxo handi bat.

OÑATI
Marta Zubiagirre Ugarte
Uztailaren 22an, urtetxo bat. Zorionak, potxola!! Ondo pasatu eguna eta patxo handi bat etxeko guztien partetik.

OÑATI
Susana Maiztegi
Uztailaren 22an, urtebetetzea.Zorionak eta urte askotarako familixa osuan partetik!

ARRASATE
Asier Azkarate Moreno
Uztailaren 23an, 9 urte. Zorionak eta patxo handia etxeko danon partetik!

OÑATI
Mikel Madina Garate
Uztailaren 23an, 8 urte. Zorionak eta ondo pasatu eguna plazoletako zure lagun danen partetik! Muxu handi bat!

ARRASATE
Andoni Azkarate Moreno
Uztailaren 23an, 9 urte. Zorionak eta patxo handia etxeko danon partetik!

ARRASATE
Irene Murua
Uztailaren 23an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi pat etxekoen partetik.

BERGARA
Sherezade Moreno
Uztailaren 23an, 26 urte. Zorionak, Shere! Zahartzen hasi ga e! Muxu eta besarkada handi bat etxekuen partetik, bereziki Uxue.

ARRASATE
Amets Ugalde
Uztailaren 24an, urtebetetzea. Zorionak, guapisima! Tirakada eta patxo edar bat, ondo-ondo pasatu eguna! Kuadrilakuen partetik.

OÑATI
Larraitz Legorburu eta Lur Gezalaga
Uztailaren 24an, urtebetetzea. Zorionak etxekoen partetik.

OÑATI
Jon Zelaia Arkauz
Uztailaren 25ean, 12 urte. Zorionak, gaizto, familixa danan partetik!

OÑATI
Irati Elorza Agirre
Uztailaren 26an, urtebetetzea. Zorionak! eta muxu pottolo bat etxekoen partetik.

OÑATI
Ana Arkauz Maiztegi
Uztailaren 26an, urtebetetzea. Zorionak etxeko danon partetik!

BERGARA
Maialen Roman Payas
Uztailaren 27an, 5 urte betetzen ditu. Zorionak familia, Paul eta Araceliren partetik. Patxo.

OÑATI
Peio Axpe Elkoroiribe
Uztailaren 27an, 2 urte betetzen ditu Zorionak, Peio eta ondo-ondo pasatu eguna txapelduna! Aitatxo eta amatxoren partetik.

ARRASATE
Ana Mari Kortabarria
Uztailaren 27an. Zorionak eta urte askotarako, ama! Eguna ondo zelebraitteko afaimerienda bat itteko gertu gauz gu. Ordua eta lekua zeuk jarri! Muxu potolo bat etxeko danon partetik!

OÑATI
Markel Bellido Zubia
Uztailaren 28an, 9 urte betetzen ditu. Zorionak eta patxo handi bat etxekoon partetik. Ondo pasatu eguna.

ESKORIATZA
Unax Arrese Otamendi
Uztailaren 29an, 4 urte betetzen ditu. Zorionak, mutikote! Oso ondo pasatu zure urtegunien, eta patxo handi-handi bat danon partetik. Haritz, aitatxo eta amatxo.

ARRASATE
Manex eta Mikel Madinabeitia
Uztailaren 30ean, Mikelek 3 urte izango ditu eta abuztuaren 2an, Manexek 6 urte beteko ditu. Ondo-ondo pasatu zuen urtebetetze egunean eta muxu handi bat denon partetik.

ARETXABALETA
Garazi Diez Garciaetxabe
Uztailaren 30ean, 6 urte betetzen ditu. Etxeko guztion partetik zorionak eta egun polita pasatu!

ARRASATE
Itsaso Berezibar
Uztailaren 30ean, urtebetetzea. Laister Deba errekaren jatxiera antolatu beharko dugu: Zigarrola-team, hori bai, neoprenuaz. Zorionak eta patxo handi bat!

ARRASATE
Jose Ignacio Lopez de Bergara
Uztailaren 31n, urtebetetzea. Zorionak, aitita! Muxu handi-handi bat Uxue, Aurken eta etxekoen partetik.

OÑATI
Inazio Arregi
Uztailaren 31n, urtebetetzea. Zorionak, Iñaxio! Ziur ekialdeko lurralde horietan ez duzula izango gerriko minik. Batez ere oporren eraginaz. Ondo-ondo pasatu!

ARRASATE
Enaitz Rueda Cabanillas
Uztailaren 31n, 2 urte betetzen ditu. Zorionak, Enaitz! Ondo pasatu zure bigarren urtebetetzean! Familia guztien partetik muxu handi bat.

ARETXABALETA
Alvaro Rodriguez
Uztailaren 31n, urtebetetzea. Zorionak!

ARRASATE
Itziar Ezkurra eta Liher Gracia
Zorionak 1ean eta zorionak 3an. Oso ondo pasatu zuen eguna eta ospatuko dugu Viveiron edanaz Ribeiro! Muxus. Zeke eta Oihana.

OÑATI
Eider Egaña
Abuztuaren 2an, 7 urte. Zorionak, prexioxa! Patxo handi bat Markel, June eta Leireren partetik.

BERGARA
Jokin Askargorta Aranzabal
Abuztuaren 3an, 5 urte! Hori da mutikotzarra in zana konturatu barik. Patxo handi-handi bat etxeko danak, aitxitxa eta amama, eta bereziki Beñaten partetik. Ondo pasatu, txapeldun!

BERGARA
Hodei Gomez de Salujera Oregi
Abuztuaren 3an, 9 urte. Zorionak etxeko guztien partetik.

BERGARA
Sua Sanchez Zabaleta
Uztailak 31ean urtebete eitten dou ta patxo haundi bat ematia nahi jau gure etxeko sorgintxuai. Jarraitzu horrela botxintxera.

ARETXABALETA
Maite Ormaetxea
Abuztuaren 4an, 26 urte betetzen ditu. Zorionak, Maite! Espero dou egun hau ondo-ondo pasetia, gurekin trago bat hartzen geratuko zara ezta? Enaitzek be patxo pilua bialtzentzu. Besarkada lagunen partetik.

ARRASATE
Igor Gordobil Amozarrain
Abuztuaren 4an, 38 urte betetzen ditu. Zorionak, aitatxo! Gaurko eguna baloia alde batera utzita gurekin ospatuko dozu ezta? Muxu handi bat Alatz, Intza eta amatxoren partetik.

OÑATI
Iñigo Arrazola Maiztegi
Abuztuaren 5ean, 17 urte betetzen ditu. Zorionak familixian partetik!

ARETXABALETA
Iker Lopez Fernandez
Abuztuaren 5ean, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat, Ikertxo, etxeko guztion partetik.

ZORIONAK!
Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak Astelehenako Goienkariaren bidez! Hiru bide dituzu zorion agurrak jartzeko:

Internet bidez
Goiena.net atariko Zorion agurren tartean sartu. Aukeratu zein herritan gehitu nahi duzun eta eskatzen diren datuak bete.

e-postaz
Mezu bat bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera. Honako datuak emanez: Izen abizenak, herria, urteak noiz betetzen dituen, zenbat urte betetzen dituen eta nahi duzun mezua.

Edo etor zaitez Goienako ordezkaritza batera.

Egubakoitz 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

kuxkuxeroa

Jokin Bereziartua

Auzoetako jaien xarmak, parekorik ez

Ez duzu talde handi baten kontzerturik ikusiko, ezta entzierroan korrika egiteko aukerarik izango ere, eta nekez aurkituko dituzu jende pilaketak. Baina ukaezina da auzoetako jaiek xarma berezia dutela, ez dutela parekorik; bertakoendako batez ere. Euren neurrian, baina urteroko hitzordu dira debagoiendar askorendako.

Aste bukaeran hainbat auzo izan da jaietan ibarrean. Arrasaten Ferrerias kaleko jaiak izan ziren protagonista atzo. Eguraldiak uretara joatera *behartzen* bazuen ere, arratsaldean ez zen umerik falta izan garai bateko jolasetan esku hartzeko. Herri afarian giro aparta izan zen eta Kubako iraultzarekin bat eginez, ez zen mojitorik falta izan. Ziur Basati tabernako **Bittor Arriaran *Orso***k prestatu zituen 60 litroak erraz edango zirela...

"Euren neurrian, baina auzoetako jaiak urteroko zita dira debagoiendar askorendako"

Bergaran, bestalde, Goimendin eta Basalgon Santiagoak ospatu zituzten. Bertsoa izan zen nagusi han: **Joxe Agirre** eta **Jesus Mari Irazu** Goimendin, eta **Xabier Amuriza** eta **Anjel Mari Peñagarikano** Basalgon. Eta azkenik, Oñatin –nola ez– Madalena auzoko jaiak izan ziren. Bertan egon zen **Urdax** harri jasotzailea, bertaratutakoak aho bete hortz uzteko. Itzela; 11 urterekin 88 kiloko harria altxatu behar da gero!

PARTE HARTU

Kintadak, aste bukaerako ezkontzak, txutxu-mutxuak...

Tarte hau zure txokoa da, irakurle.

Ekar ezazu argazkia eta azalpena edo bidali honako helbidera: *astelehena@goiena.com*

asteburuko albuma

1985ean jaiotakoen bazkaria. Zapatuan bazkaria egin zuten 1985ean jaiotako Arrasateko lagun koadrilak. Aspaldian elkartu barik, umetako garaiak oroituz parranda egiteko erabili zuten eguna. Hilarion jatetxean bazkaldu zuten, guztira, 28 lagunek. Ezin hobeto ibili ziren; orain urtero egingo dute bazkaria.

Tenerifera, Ibai Arte txartelari esker. Ibai-Arte merkatarien elkarteak Teneriferako bi pertsonendako bidaia zozketatu zuen, joan den maiatzaren 31ra arte Ibai-Arte Txartela erosketak egiteko erabili zuten bezeroen artean. Zozketaren irabazlea Oroitz Aginagalde -irudian, erdian- izan da.

jaiotakoak

Danel Lorenzo Bruña
Arrasate > 3,630 kilo. Uztailaren 22an. Gurasoak: Ana (Arrasate) eta Fran (Arrasate). Argazkian, Danel jaioberria, sehaskan lo.

Unai Garcia Cuadrado
Arrasate > 3,000 kilo. Uztailaren 23an. Ama: Yolanda (Arrasate). Argazkian, Unai jaioberria, sehaskan lo.

Hector Agirre Carmona
Arrasate > 3,400 kilo. Uztailaren 22an. Gurasoak: Luz Adriana (Arrasate) eta Albert Andres (Arrasate). Argazkian, Hector jaioberria, lo.

Ane Mateos Areitio
Bergara > 3,280 kilo. Uztailaren 18an. Gurasoak: Dorleta (Bergara) eta Jose Javier (Bergara). Argazkian, Ane jaioberria, Ander eta Enara lengusuekin.

Amaia Axpe Zubizarreta
Oñati > 3,360 kilo. Uztailaren 18an. Gurasoak: Maite (Gabiria) eta Xabi (Oñati). Argazkian, Amaia jaioberria, Ainara lehengusina eta Lourdes izebarekin.

Ane Zugasti Garcia
Oñati > 3,060 kilo. Uztailaren 17an. Gurasoak: Feli (Oñati) eta Aitor (Oñati). Argazkian, Ane jaioberria, amarekin.

Uxue Fernandez Lezeta
Aretxabaleta > 3,400 kilo. Uztailaren 23an. Gurasoak: Eneritz (Arrasate) eta Luis (Aretxabaleta). Argazkian, Uxue jaioberria, Haitz osabarekin.

Alaia Alvarez Martinez
Oñati > 3,360 kilo. Uztailaren 22an. Gurasoak: Sandra (Granada) eta Carlos (Oñati). Argazkian, Alaia jaioberria, sehaskan lo.

Laida Akizu Bilbao
Bergara > 3,400 kilo. Uztailaren 20an. Gurasoak: Ekiñe (Bergara) eta Iñaki (Bergara). Argazkian, Laida jaioberria, sehaskan lo.

BABESLEA

IKUSI MAKUSI

Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

ASTELEHENEKO
Goienkaria

EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

2009-07-27

Gari Garaialde > Prentsa argazkilaria

"Argazkilari bat inguruan ondo etortzen da beti"

JON BEREZIBAR > ARRASATE

Hamaika alditan ikusi ditugu haren argazkiak euskal egunkarietako azaletan. Berak ere ahaztua dauka zenbatetan. Kameraren objektiboa hirugarren begitzat du Garaialdek eta ez da inora ere joaten hura barik. Argazki Press euskal agentzian dihardu gaur egun.

Zu ere analogikoaren nostalgikoaetakoa zara ala errenditu zara digitalari?

Nik ez dakit, baina nire gurasoek eskertuko zuten ziurrenik etxeko garajeko komunetik laborategi zaharra kendu izana! Askoz ere leku eta denbora gehiago behar du analogikoak. Gaur egun dena digitalean egiten dut. Ez, ez naiz nostalgikoa batere.

Ingalaterrara joan eta itzultzea hasi zinen argazkilaritzan, nolatan?

Ikasten hasi nintzen, Donostian akademia baten. Hori egin eta kalera ateratzen hasi nintzen. Hasi, kolaboratzen hasten zara. Ni Sorotan Belerekin hasi nintzen. Furgonetaren gidaria izaten nintzen eta argazkiak ateratzen nituen kontzertuetan-eta. Behin *Argia* aldizkaritik deitu ninduten, taldeari elkarrizketa bat egin ziotela eta ea entseguetako argazkirik ba ote nuen. Horren ostean deitu zidaten lan gehiago eskatzeko eta poliki-poliki hasi nintzen.

Sorotan Beleren partaide, beraz?

Taldearen hasieretatik amaitu zen arte egon nintzen. Furgoneta gidatu eta instrumentuekin laguntzen nien. Jo, inoiz ere ez nuen egin.

TEST-A

Jaioterria: Hondarribia (Gipuzkoa). **Adina:** 35urte. **Ikasketak:** Argazkilaritzan modulua Donostian. **Ihes egiteko:** Paseatzea eta argazkiak ateratzea. Lanbidea bizio dut, ala alderantziz... **Zenbat argazki atera dizkiozu semetxoari?** Gezurra badirudi ere, ez hainbeste. Gainera, umeek berehala ikasten dute kamerara begiratzen eta hori ez dut batere atsegin. **Eta bidaietan:** Ezta ere, espontaneitatea dut gustuko argazkietan.

Ez? Telebistan agertu zinen ba teklatuak jotzen.

Bai, baina gauza horiek ez dira argitaratu beharrekoak. Gertatu zena da Sorotan Bele telebistara joan zen lehen aldian teklatuak jotzen zituen neskak ezin zuela. Han geundela, ez dakit, planoa betetzeko- edo, neu ipini ninduten teklatuak jotzen. Bestela Sorotan Beleren azalak eta egin izan ditut. Ondo etortzen da beti argazkilai bat inguruan izatea.

Surflariekin ere baduzu harremanik, ezta?.

Bai, baina nahiko berezia. Erakusketa bat egin nuen baina surflariak uretatik kanpora irteten atera nituen, neguan, etxetik hondartzarako tarte horretan. Irudi bereziak dira.

Kostaldekoek beti duzue atxikipena itsasoarekiko, ezta?

Hondarribiarra izanik, orduak eta orduak emanak ditut itsasoari begira. Ez argazkiak egiteko, baina lasaitzeko bakarrik. Itsasoari begira egoteak bakarrik lasaitu egiten zaitu. Hori horrela da.

KAMERA beti soinean darama Garaialdek. JON BEREZIBAR

ai, ene!

Janari beroa USB bidez

Lanean janari hotzari edo mikrouhina erabiltzeko ilarei behingoz agur esateko tramankulu hau sortu dute japoniarrek. USB bitartez poltsa ordenagailura konektatu eta bazkari beroa jan ahal izango da hemendik aurrera.

http://www.geekno.com

biharamuna

Iker Barandiaran

Inurrien lanak asko balio du

Ez naiz neu kirolari jarraipena egitearen zalea, baina aitortu beharra daukat azken urtean, lanarengatik egokitu zaidalako, arreta pixka bat jartzen diedala Debagoieneko kirolariei; euren garaipen eta porrotei, ahalegin eta ametsei.

Norbaitek esango luke hobe daudela gazteak kirola egiten drogak hartzen baino, edo esaterako **Diego Martiartuk** parean jarriko lituzke biak, dosi baten premian baleude moduan. Baina baten zein bestean, bakoitzak nahi duena egin dezala, eta biek dituzte alde onak zein txarrak, bizitza bera moduan.

Asteburuan txantxak izan ditugu bulegoan: herri arteko pilota finala zeinek irabazi; eta gure artean legutiar bat bai, baina bergararrik ez. Azkenean, Bergara! Erritmo honetan, 2009a Bergarako urtea izendatu beharko dute!

Neuk, aspaldian ohikoa bada ere, **Reyes Azkoitia** zoriondu gurako nuke: hainbeste urtetan egin duen lanarengatik (ez bakarrik oraingo emaitzengatik) eta daukan izateko moduagatik. Horrek bai irakaspen onak ematen dizkiela gaur egungo gazteei, bai pilotan eta batez ere bizitzaren aurreko jarreran presente izan beharko lituzketenak. Zorionak!

eguraldia



MAXIMOA	MINIMOA
+24	+17

Astelehenean euri langar pixka bat egingo du. Iparraldeko haizea izango da nagusi eta tenperatura nabarmen jaitsiko da.

www.euskalmet.net